


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GRADU AMAIERAKO LANA

**IKASKUNTZA-ZERBITZUA: RAMON BAJOKO
HAUR HEZKUNTZAKO UMEENTZAT ONGIZATE
ETA GARAPENERAKO TESTUINGURUAK
DISEINATZEN ETA EBALUATZEN**

Egilea: Prol Godoy, Maitane

Zuzendaria: Lopez de Arana Prado, Elena



2016-2017

Laburpena eta hitz gakoak

Gratu Amaierako Lan honetan, Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiaren bidez, Ramon Bajoko ikastetxeko beharrak aztertu ondoren, bazkalosteko ordurako haurren ongizate eta garapenerako testuingurua diseinatzea eskatu zen. Horregatik, Haur Hezkuntzako umeekin baratzan zentratutako tailerren metodologia erabili da. Lehenengo helburua, Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologiaren bidez garatu diren kompetentziak eta balioak aztertzea da. Modu honetan, kritikotasuna, hausnarketa, komunitatearen behararen asetzea, elkarlana, autonomia, altruismoa eta konpromisua aztertuz. Bigarrena, tailerren bidezko metodologia erabilita haurren ongizatea eta garapena aztertzea da, horrela, motibagarria den, naturarekin kontaktua eta komunikazioa aztertuz. Azterketa horretarako esperientzia iraun duen bitartean jasotako egunerokoen kategorizazioa egin da eduki analisiaren bidez. Analisi horri esker, Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiaren eraginkortasuna eta baliagarritasuna ziurtatu egin da, etorkizuneko irakasleen formaziorako, hainbat kompetentzia eta balio garatzen laguntzen duelako eta umeen ongizaterako eta garapenerako testuinguruak garatzeko aukera ematen duelako.

Hitz gakoak: Ikaskuntza-zerbitzua; tailerrak; baratza; Ramon Bajo; Haur Hezkuntza; kompetentziak; balioak; ongizatea eta garapena.

Resumen

En este Trabajo Fin de Grado, a través de la metodología del Aprendizaje-servicio y después de analizar las necesidades de Ramon Bajo, se pidió diseñar un contexto de bienestar y desarrollo para los niños y niñas. Por ello, la actividad a realizar con los niños y niñas de Educación Infantil, es a través de la metodología de los talleres centrada en el huerto escolar. El primer objetivo es analizar las competencias y valores que se desarrollan con el Aprendizaje-servicio. De este modo, analizando la crítica, la reflexión, saciar la necesidad de la comunidad, el trabajo en grupo, la autonomía, el altruismo y el compromiso. El segundo objetivo es, utilizando la metodología de los talleres analizar cuál ha sido el bienestar y desarrollo de los niños y niñas. Así, se analizan la motivación, el contacto con la naturaleza y la comunicación. Para ese análisis, se ha recogido un diario que ha servido, junto con el análisis de contenido, para realizar la categorización. A través del análisis se ha asegurado la productividad y la validez del Aprendizaje-servicio, ya que sirve para el desarrollo de varias competencias y valores en la formación del profesorado y para desarrollar contextos de bienestar de los niños y niñas.

Palabras clave: Aprendizaje-servicio; talleres; huerto; Ramón Bajo; Educación Infantil; competencias; valores; bienestar y desarrollo.

Abstract

In this Bachelor's Degree Final Project, using the Service-learning methodology and after analysing the needs in Ramon Bajo School, we were asked to design a context for children's well-being and development. Due to this, the activity is going to be made by the workshop methodology focusing on the orchard. The first aim in this project is to analyse the competences and values that were developed in the Service-learning methodology. In this way, analysing criticism, reflection, satiate of the need in the community, group work, autonomy, altruism and commitment. The second aim of the project is to analyse well-being and development of children using the workshop methodology. Thus, analysing, the motivation, contact with nature and communication. For this analysis a daily paper was written to make the categories, together with the contents analysis. With this test it is claimed the productivity and the validity of Service-learning, considering that some competences and values were developed for teachers training and to developed some context for children's well-being.

Key words: Service-learning; workshops; orchard; Ramon Bajo; Childhood Education; competences; values; well-being and development.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	1
2. Gaiaren justifikazioa eta garrantzia: Marko teorikoa	2
2.1. Ikaskuntza-Zerbitzua	2
2.1.1. Hezkuntza eredu berri bat: Hezkuntza inklusiboa.....	2
2.1.2. Zer da Ikaskuntza-zerbitzua?; Konpetentziak eta balioak.....	2
2.1.3. Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza proposamen bat bezala.....	4
2.1.4. Ikaskuntza-zerbitzuaren faseak.....	5
2.2. Zerbitzua kokatuko den testuingurua: Ramon Bajo ikastetxea	6
2.3. Tailerrak baratzan kokatuak	10
2.3.1. Zer dira tailerrak?	10
2.3.2. Tailerren atalak	11
2.3.3. Tailerren faseak	12
2.3.4. Eskola baratzen sorrera.....	13
2.3.5. Eskola baratzak hezkuntza baliabide bezala.....	14
3. Gradu Amaierako Lan honen helburuak	17
4. Metodologia.....	18
4.1. Partehartzaileak	18
4.1.1. Ramon Bajoko ikastetxeko umeak eta irakasleak	18
4.1.2. Itxaso Saenz de Lafuente Gonzalez de Mendivil eta Maitane Prol Godoy ...	19
4.1.3. Gasteizko hezkuntza eta kirol fakultateko irakaslea.....	19
4.2. Datu biketarako tresna eta analisirako metodoa.....	20
4.2.1. Lehenengo dimentsioa: Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez irakasle profilerako garatutakoa.....	22
4.2.2. Bigarren dimentsioa: Tailerren bidez umeek garatutako ongizate eta garapena.....	23
4.3. Prozedura.....	23

5. Emaitzak	26
5.1. Lehenengo dimentsioa: Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez irakasle profilerako garatutakoa.....	26
5.1.1. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kompetentziak.....	26
5.1.2. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako balioak	29
5.1.3. Ikaskuntza-zerbitzuan garatutako kompetentzia eta balioen alderaketa.....	31
5.2. Bigarren dimentsioa: Tailerren bidez umeez garatutako ongizate eta garapena .	32
5.2.1. Tailerren bidez umeez garatutako ongizatea	32
5.2.2. Tailerren bidez umeez garatutako garapena.....	33
5.2.3. Tailerren bidez umeez garatutako ongizate eta garapenaren alderaketa	34
6. Ondorioak	36
6.1. Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiarekin garatutako kompetentzia eta balioen ondorioak.....	36
6.2. Tailerren bidez umeez garatutako ongizate eta garapenaren ondorioak	38
6.3. Ondorio pertsonalak	39
7. Etorkizuneko ildoak.....	41
8. Bibliografia.....	42
9. Eranskinak	45
9.1. Egunerokoa.....	45
9.2. Ramon Bajoko baratzako tailerren proposamena.....	60
9.3. Ramon Bajoko baratzan ateratako argazkiak	61

Irudien aurkibidea

1. Irudia: <i>Vitoria-Gasteizko alde zaharra</i>	6
2. Irudia: <i>Ramon Bajo ikastetxea kanpotik</i>	7
3. Irudia: <i>Ramon Bajo ikastetxea erreformatuta</i>	9
4. Irudia: <i>Egunerokoa</i>	20
5. Irudia: <i>Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologian garatutako konpetentziak</i>	29
6. Irudia: <i>Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologian garatutako balioak</i>	31
7. Irudia: <i>Ikaskuntza-zerbitzuan garatutako konpetentzia eta balioen alderaketa</i>	32
8. Irudia: <i>Tailerren bidez umeez izandako garapena</i>	34
9. Irudia: <i>Tailerren bidez umeez garatutako ongizate eta garapenaren alderaketa</i>	35

1. Sarrera

Gratu Amaierako Lan honetan, Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologia erabiliz, komunitate baten beharrak asetzeko emandako urratsak agertuko dira. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kompetentzien eta balioen azterketa egingo da, baita umeen ongizate eta garapenerako testuinguruen sorketa ere. Horretarako, bazkalosteko ordurako jardura batzuk aurrera eramatea eskatu da.

GrAL honetan, Ramon Bajoko ikastetxea izan da gure testuingurua. Ikastetxe honen beharra, Haur Hezkuntzako haurrekin, bazkalosteko ordurako ekintza pedagogiko eta hezigarri bat ahalbidetzea zen. Hala ere, ekintza honek hainbat helburu zituen, hala nola, dohainik izan behar zen, Haur Hezkuntzako haur guztientzako zuzendua eta patioan egindakoa. Gainera, Ramon Bajo ikastetxeko behar nagusia, baratzan hurrek esperimendatzea zen, baita hura apaintzea ere. Horregatik, Komunitatearen beharra asetzeko, tailerren bidezko metodologian oinarritu izan gara, baratzako tailerretan hain zuzen ere

Aurkibideari jarraituz, Gradu Amaierako Lan hau bederatzi ataletan banatu egiten da. Hasteko, sarrera azaltzen da non lanaren nondik norakoak aipatzen diren, Jarraian, justifikazioa eta gaiaren garrantzia agertzen dira, non ikaskuntza-zerbitzuaren eta tailerren edo zehatzago baratzako tailerren marko teorikoa garatuko den.

Horren ostean, helburuak daude azalduta eta ondoren, lanaren metodologia agertzen da. Bertan, zerbitzuan parte hartu duten pertsonen, informazioa dago azalduta, hala nola, Ramon Bajo ikastetxeko haurrak eta irakasleak; Itxaso Saenz de Lafuente eta Maitane Prolen informazioa eta bukatzeko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslearen informazioa, Elena Lopez de Arana. Metodologiaren bigarren puntua, datu bilketarako erabili den tresna eta analisirako metodoa azaltzen dira. Puntu honekin bukatzeko GrAL-aren prozesu osoa azaltzen da.

Lanaren bostgarren puntuan analisi metodoarekin lotutako emaitzak jaso dira, ondoren, emaitza horien ondorioak azaltzeko. Gero, etorkizuneko ildoak azaltzen dira, non etorkizun batean aurrera eramane daitezkeen proiektu batzuen ideiak agertzen diren azalduta. Bukatzeko, bibliografia eta hainbat eranskin agertzen dira.

2. Gaiaren justifikazioa eta garrantzia: Marko teorikoa

2.1. Ikaskuntza-Zerbitzua

2.1.1. Hezkuntza eredu berri bat: Hezkuntza inklusiboa

Subiratsek (2013) dioten moduan, gaur egun, gure gizarteak aldaketa ugari jasotzen ari da gizakien arteko harremanetan, modu horretan desberdintasunak hazten ari dira (Subirats in Dominguez, 2014).

Horregatik, Bolivarrek eta Escuderok (2008) diotenez, hezkuntza eredu berria osatzea beharrezkoa da. Zeinetan, dibertsitatea, zuzentasuna, askatasuna eta elkartasuna bezalako baloreak garrantzi handia duten.

Hezkuntza eredu berri horrekin, hezkuntza inklusiboaz hitz egin dezakegu. Hezkuntza inklusiboa, fenomeno egituratu, multidimentsional eta dinamikoa da. Honek proposatzen duena zera da, ikasle guztiek hezkuntzan barneratzeko, iraunkortzeko eta partehartzeko eskubidea dutela (Booth eta Ainscow, 2013; Echeíta, Parrilla eta Carbonell, 2008; UNESCO, 2009, in Dominguez 2014).

Gainera, hezkuntza inklusiboaz gain, Battlek (2013) esaten du, hezkuntzaren helburua ez dela soilik kurrikuluarekin arduratuta dauden ikasleak hezitzea baizik eta mundua aldatzeko prest dauden hiritarrak sortzea (Batlle, 2013).

Beraz, hezkuntza eredu berri bat behar dela aipatzekoa da, zeinetan, hezkuntza inklusiboa eta ikasleen autonomia beharrezkoak diren. Horretarako bidea, Ikaskuntza-zerbitzua izan daiteke. Azken hamarkada hauetan, herrialde desberdinetan, hezkuntza proposamen berri hau garatzen joan dira (Puig, Gijon, Martin eta Rubio, 2011).

2.1.2. Zer da Ikaskuntza-zerbitzua?; Konpetentziak eta balioak.

Ikaskuntza-zerbitzua zer den adierazten duten definizio ugari daude eta guztiek ezaugarri berdinak aipatzen dituzte. Puig *et al.* (2011) Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza proposamen bat dela diote, zeinetan ikaskuntza kurrikularra eta komunitate bati zerbitzu bat eskaintzea bateratzen diren. Horrekin batera, baloreen hezkuntza praktikan jartzen da ikasleekin, modu aktibo, kritiko eta partehartzaile batean.

Era berean, hezkuntza inklusiboago bat sustatzen du. Gainera, testuinguru zehatz batean soilik lortu daitezkeen oinarrizko gaitasun batzuk barneratzeko ere tresna erabilgarria da (Puig, Gijon, Martin eta Rubio, 2011).

ARCE PROGRAMAKo (2014:7) *“Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko gidaliburua”*-n alegia, aipatzen den moduan: *“Ikaskuntza-zerbitzua metodologia berria ez bada ere, teknika/metodo eraginkorra da esperientzian oinarritutako hezkuntza garatzeko.”* Gainera, aipatzekoa da ere, ikaskuntza-zerbitzuak, hezkuntzari esanahi sakona ematen diola, izan ere, hiritartasuna irakasteko baliagarria da, baita, bizitzarako inplikazio soziala sustatzeko, komunitateen ongizate kolektiboa sustatzeko eta gizarte solidario eta bidezko bat eraikitzeke ere.

Beraz, gidaliburu honen arabera, esan daiteke, haren hitzetan, ikaskuntza-zerbitzuak arlo hauek integratzen dituen metodoa dela: edukiak, trebetasunak, balioen ikaskuntza eta komunitate bati zerbitzua eskaintzea. Gainera, ikaskuntzaren zein zerbitzuaren arteko interakzioen eraginak areagotzen ditu. Hau da, ikaskuntzaren bidez, eskainiko den zerbitzuari buruzko ezagupenak lortzen dira, gero komunitatearen bizikaltatea eta ekitatea areagotzeko (ARCE PROGRAMA, 2014).

Battle-ek (2013) Ikaskuntza-zerbitzua ikasteko eta irakasteko era bat dela dio, zeinetan, hezkuntza arrakasta eta konpromisua bateratzen diren. Hitz gutxitan, komunitatearentzako zerbitzu bat eginez ikastea dela. Beraz, aipatu genezake, haren ustetan, haurrak ez direla etorkizuneko langileak, baizik eta gaur egungo hiritar aktiboak. Izan ere, zerbitzu bat eskaini ahal diote komunitateari eta bide batez, haien etorkizunerako garatzen hasi.

Beste alde batetik, aipatzen du, zerbitzu bat eskaintzea metodo eraginkorra dela, izan ere, hurrek zentzua aurkitzen diotelako momentuan ikasten ari direnari. Adibidez, odol emate bat antolatzen dute auzoan eta bide batez hurrek, zientzia edukiak ikasten dituzte, helduekin harremanetan jartzen eta beren burua antolatzen dute (Battle, 2013).

Halaber, Puig (2014), ikaskuntza-zerbitzua, metodologia pedagogikoa dela dio, zeinetan, gaitasunak, edukiak eta baloreak, komunitateari eskaintzen zaion zerbitzuaren eginbeharrekin bateratzen diren.

Hainbat adibide jartzen ditu ikaskuntza-zerbitzuari buruz. Adibidez, ikastetxe batean parte hartuko duten hainbat pertsona bilatzen dira, pertsona helduei mugikorrek erabiltzen irakasteko. Edota, janari emate bat antolatzen da auzoan eta ikastetxe bati eskatzen zaio laguntza. Ekintza horietan guztietan, prozesua berdina da partehartzaileekin: lehenengo, ikasleei azaldu behar zaie, zerbitzua eskaintzen zaien pertsonekin zer nolako jarrerak izan behar dituzten. Baita zer nolako jarrerak eta ekintzak sortu behar diren eskaintako zerbitzuan zehar. Bukatzeko saioa aurrera eraman ahal da.

Puigek (2014), ikaskuntza-zerbitzuari buruz idaztearen arrazoien zerrenda egiten du eta jarraian aipatuko dira. Batetik, lehendabiziko arrazoia, Ikaskuntza-zerbitzuak ez duela bilatzen bakarkako arrakasta da. Hau da, hezkuntzak gaur egun, lehia bilatzen du ikasleen artean eta baita arrakasta pertsonala ere, ikaskuntza-zerbitzuak aldiz, esaten du lankidetzaren aurrerapen pertsonala, ekonomikoa eta soziala dela. Bestetik, bigarren arrazoia, lankidetzaren norabide hirukoitza hartzen duela da, halaber, lankideekin kooperazioan lan egitea, elkartasuna zerbitzua eskainiko zaien talde edota pertsonentzako eta hiritartasuna.

Gainera, autoreak aipatzen duenez, ikaskuntza-zerbitzuak gainera ez du balio soilik besteak laguntzeko, baizik eta norbere burua laguntzeko ere. Izan ere, altruismoa sustatzen du metodologia horrek eta emozio positiboak, autoestima, zerbitzuaren eginbeharrekoak betetzearen harrotasuna... ere sustatzen ditu. Gainera, beste eginbehar batzuetan partehartzeko interesa, zentzu kritikoa eta borondatea ere piztu ditzake (Puig, 2014).

2.1.3. Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza proposamen bat bezala.

Hau guztia aztertuta, aipatu daiteke, hezkuntza proposamen bat Ikaskuntza-zerbitzutzat hartzeko baldintza hauek bete behar dituela:

- Curriculumarekin harremana daukaten ikaskuntzak antolatu eta garatu behar ditu.
- Ikaskuntza prozesua, komunitateari eskaintzen zaion zerbitzu solidario eta kalitatezkoa izan behar du.
- Prozesuan parte hartzen duten ikasleen protagonismoa nabaria izan behar du.

Bukatzeko, aipatzekoa da ere, metodologia hau, egokia dela baloreak eskuratzeko. Izan ere, Puigen (2014:11) hitzetan, “*La manera de aprender de verdad un valor es practicándolo, reflexionando sobre lo que se ha llevado a cabo y exerimentando sentimientos de satisfacción*”. Hau da, baloreak ez dira ikasten entzuten baizik eta praktikan jartzen eta erabiltzen (Puig, 2014).

2.1.4. Ikaskuntza-zerbitzuaren faseak

Tapiaren (2010) artikulua jarraitzen badugu, Ikaskuntza-zerbitzuaren faseak zeintzuk diren aztertu daiteke. Jarraian zeintzuk diren ikusiko dugu (Ikusi 1. Taula).

1. Taula: *Ikaskuntza-zerbitzuaren faseak* (Clayss in Tapia, 2010)

AURRETIKO ETAPA
<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntza-zerbitzuaren ezaguera eta ulerkuntza. • Motibazio pertsonala eta instituzionala, proiektua aurrera eramateko. • Gazteen protagonismoaren garrantziaren kontzientzia hartzea.
A ETAPA: DIAGNOSTIKOA ETA PLANIFIKAZIOA
<p>1. Urratsa: Partaidetza diagnostikoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> a) beharren/arazoen/erronken identifikazioa. b) Hezkuntza entitatearen erantzukizunaren azterketa. <p>Lehenengo diseinuaren zirriborroa eta barne eta kanpo instituzioen ituneko bilaketa.</p> <p>2. Urratsa: Diseinua eta proiektuaren planifikazioa.</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Oinarriak. b) Ikaskuntza eta zerbitzu-solidarioaren helburuak. c) Zerbitzu solidarioaren hartzailleak. d) Zerbitzu solidarioaren ariketak. e) Edukiak eta ikaskuntza ariketak. f) Denbora- Kronograma posiblea. g) Proiektua garatzeko espazioak. h) Arduradunen eta protagonisten izendapena. i) Iturri eta baliabideak. j) Proiektuaren diseinuaren eta barne-koherentziaren hausnarketa eta ebaluazioa.
B ETAPA: GAUZATZEA
<p>3. Urratsa: Instituzioen itunen ezarketa, baliabideen lorpena. Akordio, itun eta hitzarmenen gauzatzea.</p> <p>4. Urratsa : Proiektu solidarioaren inplementazio eta kudeaketa. Ikaskuntzarekin lotutako edukien aldibereko garapena. Erregistroak, aldaketak, berrikuspenak, inplementazio berriak eta</p>

itunak. Erdi mailako lorpenen hausnarketa eta ebaluazioa.

C ETAPA: ITXIERA ETA BIDERKETA

5. Urratsa: Bukaerako ebaluazioa eta sistematizazioa, inpaktu neurketa.

6. Urratsa: Ospakizuna eta partaideen onarpena.

7. Urratsa: Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen jarraipena eta biderketa.


ZEHARKAKO PROZESUAK

- Hausnarketa.
- Erregistro, sistematizazio eta komunikazioa.
- Prozesuaren ebaluazioa.

2.2. Zerbitzua kokatuko den testuingurua: Ramon Bajo ikastetxea

Ramon Bajo ikastetxea, Vitoria-Gasteizko alde zaharrean dago kokatuta, Eskola kalean hain zuzen ere. Alde zaharra hiriko erdialdean dago. Gasteizko alde zaharrak 9.824 biztanle dauzka eta aipatzekoa da, hegoaldetik, Ensanche auzoarekin egiten duela muga, mendebaldetik, Lovaina eta Coronacion auzoekin, iparraldetik Zaramagarekin eta ekialdetik El Anglo auzoarekin.

Gainera, almendra forma daukan auzoak, muino baten gainean dago eraikita baita honen maldetan ere. Honen inguruan, hiria hazten joan da. Esatekoa da ere, auzoaren balio historikoa oso altua dela, haren eraikinengatik. Hala ere, denboraren utzikeriarengatik, Alde Zaharreko gune batzuen degradazio maila nahiko altua da (Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 2017) (Ikusi 1. Irudia).



1. Irudia: *Vitoria-Gasteizko alde zaharra*

Ramon Bajo ikastetxea (Ikusi 2. Irudia), A ereduko Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako ikastetxe moduan hasi zen. Bertan 16 irakasle eta 75 ikasle aurkitzen ziren, horietako hiruren bat Magrebak, beste hiruren bat ijituak eta beste guztiak,

bertakoak, ekuatoginearrak, portugesak eta txinatarrak izanik. Ramon Bajo ikastetxea, Vitoria-Gasteizko lehen ikastetxe publikoa izan zen, prestigio altukoa. Hala ere, alde zaharraren utzikeria eta degradazio mailarengatik, ikastetxeak beherakada handia jasan zuen. Beraz, irakasle eta hezkuntza komunitateak estrategia berriak bilatzen hasi ziren (Luna eta Jaussi, 2011).



2. Irudia: *Ramon Bajo ikastetxea kanpotik*

1995-1996 ikasturtearen amaieran, Orientazio Pedagogikoko Zentruko (COP: Centro de Orientación pedagógica) aholkulariek, ikaskuntza komunitateei buruz hitz egin zieten, zuzendaritza taldeari eta klaustroari. Hauek, nahiz eta informazio asko ez eduki oraindik haien beharrekin bat zetorrela ikusi izan zuten.

Ikaskuntza komunitate izaeraren bilakaeraren hasiera, 1996-1997 ikasturtearen eman zen. Proiektu berriaren lehenengo fasea izan zen eta sentsibilizazio aste bat izan zuten 1997. urtean, sektore guztien onarpenarekin, zentroa, izaera hori bereganatzea erabaki zuen. Hala ere, baldintza bakarra jarri zuen, haien erritmo propioa errespetatzea. Aipatzekoa da, ikaskuntza komunitateen ezaugarrietako bat, gurasoak, geletara parte hartzera sartu daitezkeela da (Luna eta Jaussi, 2011).

Ikaskuntza komunitate bat, hezkuntza komunitateko kideek osatutako ikaskuntza espazio bat da, non, hezkuntza munduan eragina duten agente guztiek hartzen duten parte. Ikaskuntza komunitate batek hainbat oinarri orokor ditu, hala nola, partehartze orokorra, ikasketarako antolakuntza eta inguru aproposap eratzea, ikasleen itxaropenak eta autoestima igotzea, lidergoa eta ardurak sakabanutzea eta berdinen arteko ikaskuntza eratzea (Luna eta Jaussi, 2011).

Gainera, ikaskuntza komunitate batean, ikasleek, haien adin berdineko taldeek dituzten aukera berdinak izateko lan egiten da, baita biziko diren munduan sozio-kulturalki baztertuak ez izateko ere eta haien autoestima eta itxaropenak igotzeko (Luna eta Jaussi, 2011).

Proiektuaren bigarren fasea, aukeraketa izan zen, baita zentroaren baliabide aprobetxagarriak aztertzea ere. Horren ostean, hirugarren urratsa, “ametsaren etapa” deiturikoa izan zen, non, irakasle, ikasle, familia, hezitzaileak ez ziren hainbat pertsona, inguruko erakundeak eta zonaldeko inspektoreak, zer motatako ikastetxea nahi zuten amestu zuten. Haurrek adibidez, marrazkiak edo idatziz egin zuten eta haien ametsak ikastetxetik itsatsi zituzten. Hala ere, gehien kontuan hartu ziren ametsak, irakasleenak izan ziren. Gainera, haien ametsak zehatzagoak izan ziren eta batzuk gehiengoak eskatua izan zen; familien partehartzea alegia.

Horren ostean, laugarren fasea, lehentasunak erabakitzea izan zen eta fase horretan lau lehentasun atera ziren. Batetik jantoki hezigarri bat sortzea izan zen. Bigarrenik, informatika gela bat sortzea. Hirugarren, hezkuntza metodologia eta antolakuntza aldatzea eta bukatzeko, familien partehartzea.

Honekin batera, bostgarren fasea etorri zen, aldaketa proiektua zeinetan, zentroaren tamaina eta talde txikia zirela aprobetxatu zuten, beste alderdi batzuk indartzeko: mailak batzea, ikaskuntza bateratzea, haurren garapenari lehentasuna ematea, etab. Gainera, gelak, zikloka batu zituzten eta horrek, talde bakoitzeko irakasle gehiago egotea baldintzatu zuen, talde lana bultzatuz. Bukatzeko, azkeneko fasea, ebaluazioa eta jarraipena egitea izan ziren (Audikana).

Gainera, proiektuaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, tailerren bidezko antolaketa da. Tailerrek, ikaskuntza-irakaskuntza prozesu, aktiboago eta esanguratsuagoa eskaintzen dute. Hala ere, aipatzekoa da, irakasleek lan handia egin behar izan zutela material eta jarduerak prestatzeko, izan ere, testuliburuaren erabilera izugarri jaitsi zuten (Luna eta Jaussi, 2011)

Ramon Bajoko Blogak azaltzen duen moduan, familia handi bezala definitzen dute haien burua; senide, ume eta irakasleek sortutakoa. Horrez gain, eskola, inguruarekin bat dator. Hau da, auzoko elkarte desberdinekin daude harremanetan eta auzoko baliabideak erabiltzen dituzte.

Gainera, ikastetxe malgua direla ere diote, izan ere, haur bakoitzak haien bidea eraikitzea da helburua, pertsona gisa hazten laguntzen zaien bitartean. Aipatzekoa da ere, hezkuntza inklusiboaren aldekoak direla, haiek dioten moduan: *“Ikastetxearen baloreen artean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta identitate sexualaren eraikuntzarekiko errespetua daude”* (Ramon Bajo, 2017).

Ikastetxea, orain dela urte batzuk, A eredutik D eredukoa izatera pasatu zen. Beraz, horrela izanda euskara dute ikastetxearen konpromiso nagusienetako bat bezala. Baita, gaztelaniaz gai izatea eta ingelesezko oinarrizko maila garatzea ere. Haien helmuga, diotenez, kalitatezko hezkuntza da, baita umearen garapen integralean laguntzea ere. Klaustroa aktiboa da beti hobekuntzen eta proiektu berrien bila. Esatekoa da ere kultura desberdinak daudela ikastetxean eta haien arteko elkarbizitza egunerokoa dela (Luna eta Jaussi, 2011).

Ikastetxeak, erreformak egin zituenean, helburua, Haur Hezkuntzako espazioa aldatzea izan zen. Espazio berrian, gela itxirik ez dago eta baliabide eta altzari ezberdinez hornituta dago. Gainera, haiek diotenez, haur bakoitzak, bere ezaugarri, interes, nahi eta premien arabera erabiliko ditu altzari eta baliabide horiek, baita haurrak dauden fasearen arabera ere. Zonaldeak, funtzio bat edo gehiago betetzeko pentsatuta daude eta honako hauek dira: imaginarium-a, atsedeen gunea, txirrista, hodiak, zuhaitza, etapen araberako lan esparruak, familien gunea...(Luna eta Jaussi, 2011).



3. Irudia: Ramon Bajo ikastetxea erreformatuta

2015-2016. urtean, Ramon Bajo ikastetxeak, behar batzuk zituela detektatu zuen. Izan ere, Ramon Bajoko irakasleek denborarik ez dute ekintza eta eginbeharreko guztiak aurrera ateratzeko eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatera jo zuten laguntza bila. Ekimen

bati esker, behar horiek asetzeko aukera izan zuten, izan ere, Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiaren bidez, ikasleei GrAL bat aurrera eramateko aukera eman zitzaien.

Beharretako bat, bazkalosteko ordurako, ikasleekin ekintza hezigarri bat aurrera eramatea zen. Ramon Bajo ikastetxeko gurasoen elkarteak, bai jantoki ostean, bai eskolaz kanpoko orduetarako hainbat ekintza eskaintzen ditu, baina guztiak ordaintzeko ekintzak dira eta haur guztien partehartzea ez da bermatzen. Horregatik, haur guztien partehartzea eta aktibotasuna ziurtatzeko eskaintza bat proposatzea egokia zela erabaki dute.

Beraz, Carmen Muñozek (Ramon Bajoko Haur Hezkuntzako koordinatzaileak), guk ikasleok hainbat proposamen aurkeztu ondoren, ikastetxeak behar zehatz bat zuela aipatu zigun; guk, eskolako baratzean tailer batzuk aurrera eramatea alegia.

2.3. Tailerrak baratzan kokatuak

2.3.1. Zer dira tailerrak?

Tailerrak hizkuntza arruntean, zerbait egiten, eraikitzen edo konpontzen den lekua da. Hala ere, duela hainbat urte, praktika hori hobetu egin da, tailer kontzeptua hezkuntzara zabaltzen. Esan daiteke beraz, hezkuntzako tailerretan lantzen den kompetentzia nagusienetako bat, egiten ikastea dela. Baita, hainbat pertsona kooperatiboki lan egiten duten lekua dela ere, zerbait egin edo konpontzeko. Praktika honek, irakaskuntzarako beste metodo aktiboago batzuetarako aukera eskaini du (Betancourt, 1996).

Betancourten (1996) *El taller educativo* liburuan, tailer hitza hezkuntza arloan esanahi berria hartu zuela aipatzen da. Izan ere, tailerra, pertsona multzo bat biltzea da helburu berdinarekin; hezkuntza alegia. Pertsona multzo hori, ideia eta material berria sortzea izango litzateke helburu nagusia (Betancourt, 1996).

Gainera, liburuan autore desberdinen definizioak azalduta agertzen dira, hala ere, gehienak bat datoz gauza batean, pertsona multzo batek egiten dutela eta praktika integratzailea dela. Hala nola, Betancourtek (1996) dio, tailerrak ezagutza unitate produktiboak bezala definitzen direla. Errealitate zehatz batean zentratu behar garela, errealitate hori eraldatu ahal izateko eta partehartzaileek lan egin behar dutela teoria eta praktika bateratzen (Betancourt, 1996).

Kisnermanek dio, tailerrak, formakuntza profesionala ahalbidetzen duten prozesu bat dela (Kisnerman in Betancourt, 1996).

Tailerrei buruz agertzen Reyesek (1996) tailerra, errealitate integratzaile, konplexu eta erreflexibotzat hartzen dugula dio. Errealitate integratzaile horretan, teoria eta praktika prozesu pedagogikoaren indar eragile bezala agertzen dira. Gainera, errealitate sozialarekin komunikazio iraunkorra izango du eta hezitzaile eta ikasleez osatutako lantalde baten bidez egindako praktika da, zeinetan pertsona bakoitza taldearen parte den eta haien ekarpen espezifikoak egiten dituzten (Reyes in Betancourt, 1996).

Aurreko guztia kontuan hartuta, tailerrei buruz aurkitutako azkeneko definizioa nabarmentzekoa da, izan ere, Haur Hezkuntzako tailerretan zentratzen da.

“Tailerra ez da inoiz helburua, tailerra momentu konkretu eta labur baten, gai zehatz baten inguruko hausnarketa bultzatzeko bidea da. Tailerraren bidez umeari testuinguru pribilegiatua eskaintzen zaio non irakasleak gai batekin loturiko esperientziaren antolaketa, hau da, material anitzetik abiatuz produktu bat sortzeko aukera eskaintzen dion umeari, honek, modu globalean inplikatur, bizituz, esperimenteratuz... mundua, bestea, baina bereziki bere burua ezagutu eta eraiki ahal izateko” (Lopez de Arana, Rekondo eta Salegi 2013).

2.3.2. Tailerren atalak

Tailer baten diseinuak, lau atal izan behar ditu zehaztuta: gaia, helburuak, produktua eta materiala. Lau atal hauek, lotuta egon behar dute (Lopez de Arana, Rekondo eta Salegi 2013).

Gaiari buruz autoreek diotenez, edozein gai egokia da Haur Hezkuntzarako, hala ere, irakasleek ikasleen adinak kontuan izan behar dituzte. Izan ere, gaiak adin tarte bakoitzari egokitu beharko dituzte.

Helburuei dagokionez, gaiarekin lotu behar direla diote eta modu horretan egokitu behar dira. Helburuak lau dira: lehenengoa, umeengan, ideiak, hipotesiak edota galderak sustatzea da, hausnarketa bideratzea alegia; bigarrena, hautatutako materialetik, hurrek produktu funtzional bat sortzea da eta bukatzeko, oraindik

existitzen ez dena, ikusgarri egiteko kompetentzia potentziala garatzea, ikertzea, berritzea, transformatzea eta baita pertsonalizatzea ere izango da.

Ondoren, zehazten den produktua gaiarekin sustatu nahi den hausnarketarekin bat etorri beharko litzatekela diote eta bukatzeko, materialari garrantzi handia ematen diote. Izan ere, aipatzen dutenez, materiala hautatzerakoan ikerketa sakona egin beharko litzateke.

Materiala hautatzerakoan kontuan izan beharreko irizpideetako bat multisentsorialitatea izango zen. Ziurtatzekoa da materialaren testurak, koloreak, zaporeak, tamaina, tenperatura... ezberdinak direla, izan ere, haurren garapenerako, sentsorialitatea oso garrantzitsua da. Gainera, materiala anitza izan behar da baina kopuruaren oreka zainduz. Hau da, gutxiegi bada, haurrak aspertuko dira eta gehiegi bada, umeak gain-estimulatzeko arriskua dagoela aurreikusten dute autoreek. Materialari buruzko azken alderdia, materiala erakustearekin ez dela nahiko da, hau da, material hori haurrekin landu beharrekoa da. Izan ere, haurrek, materialek hainbat aukera eskaintzen dizkietela ikusi behar dute ondoren haiek manipulatu ahal izateko (Lopez de Arana, Rekondo eta Salegi 2013).

2.3.3. Tailerren faseak

Tailerrekin bukatzeko, Lopez de Arana *et al.* (2013) diotenez, tailer on bat sortzeko sei fase errespetatu behar dira jarraian zehaztuko direnak. Zehaztu beharreko atal hauek gainera, diseinu zehatz bat izan behar dutela diote autoreek.

- **Sarrera** dialogikoa izan behar du.
- **Kontsigna**, haurren aurrezagutzetara egokitutakoa izan behar du ideiak planteatzerakoan. Gainera, zabala izan beharko du, sormena garatzen uzteko.
- **Dokumentazioa** egiteko, lehenengo informazioa bilatu beharko da ondoren materiala zehaztu ahal izateko.
- **Materialari** dagokionez, erabiltzen den materialari funtziorik ez esleitzea oso garrantzitsua dela aipatzen dute. Baita erakargarria izan behar dela eta antolatuta egon behar duela ere. Gainera, materiala anitza bada, sormenari eta esperimentazioari bidea irekiko zaio.

- **Itxiera**, ekoizpen kolektibo batekin amaitzea komenigarria dela diote, baita, haurren bizipen, esperientzia eta ahotsak entzutea eta jasotzea interesgarria izango litzatekela ere.
- **Ebaluazio** on bat egiteko, hainbat alderdi hartu beharko lirateke kontuan, hala nola, testuinguruaren eta tailerren diseinuaren egokitasuna, irakaslearen esku hartzea eta umeen ongizatea (Lopez de Arana, Rekondo eta Salegi 2013).

2.3.4. Eskola baratzen sorrera

Historian zehar, natura, hezkuntzan integratzeari eta hau, ikasleen interesa sustatzeko erabiltzeari buruzko aurrekariak bilatzen ditugunean, Rousseau (1778), Dewey (1891) eta orokorrean, Eskola Aktiboaren mugimendu pedagogikoa aipatu behar ditugu (Barrón eta Muñoz, 2015).

Rousseauk, hezkuntzan, aldaketa handia planteatu zuen, interesa irakasleengandik ikasleengana transferituz. Gainera, naturarekin kontaktuan zentratutako eta ikasleen aktibotasuna sustatzen duen hezkuntza bat proposatu zuen. Aipatzekoa da ere, Rousseauk (1778), aldaketarako oinarritzko doktrinak ezarri zituela, baina mugimendu erreformista izan zen ikaslearengan zentratutako pedagogia aktibo hau garatu eta martxan jarri zuenak (Barrón eta Muñoz, 2015).

Aldaketa horretan, Deweyren (1891) Psikologia funtzionalak ondorio erabakigarriak izan zituen. Deweyk (1891), ikasleek haien kabuz pentsatzeko eta haien jarduerak egiteko bultzatzen zituen, jarrera autoerregulatzeko gai direla defendatzen zuen (Barrón eta Muñoz, 2015).

Espanian, XX. mendearen hasieran, “Padre Manjón”-ek, naturarekin kontaktuan dagoen hezkuntza bat defendatu zuen. Gaur egun, ingurune hezkuntzaren integrazioarekin, ikasleak zentratuago dagoen hezkuntza berragertuko da. Horrekin batera, hezkuntza zentroen ardurari bultzada berria emango zaio eta eskola baratzen erabilera sustatuko da (Peramos, 1954 in Barron eta Muñoz, 2015).

80ko hamarkadan, eskola baratzen inizatiba asko agertu ziren, administrazio publikoak bermatuta. Eskola baratzen ikuspegi pedagogikoa aztertzen badugu, hezkuntzarako baliabide bezala agertzen da. Gainera, jarduera anitz aurrera eramateko erabilgarriak dira; hala nola, atalen ezaguerak garatzea, baratzako ekosisteman agertzen

diren harremanak ezagutzea, elikagaiak landatzeko bideak ezagutzea, baita horien erabilera ere, elikadura osasuntsua, etab (Barrón eta Muñoz, 2015).

2.3.5. Eskola baratzak hezkuntza baliabide bezala

Barrón eta Muñozek (2015), eskola ortu ekologiko eta komunitarioei buruzko proiektu bat aurkeztu dute. Proiektu hori aurrera eramateko, ekintza ikerketa partehartzailea edo *investigación-acción participativa* (IAP) metodologia ezarri behar da, zeinetan, elkarrizketari eta negoziazioari garrantzi handia ematen dioten, partehartzaileek hausnartu dezaten eta behar eta arazoetarako irtenbide adostua bilatu dezaten.. Helburua, ortuak ez dituztela soilik hezkuntza baliabideak eskaintzen baizik eta eskolako kultura berritzeko eta aldatzeko osagai garrantzitsuak izan daitezkeela azaltzea da.

Proiektua aurrera eramateko, Ikaskuntza-zerbitzua erabili da, hainbat erakundeekin harremanetan jarri izan baitira. Baita hainbat eskola ortu haien artean harremandu ere. Honen helburua, eskola ortuak, hezkuntza sozialean zentratutako espazioak sortu ahal dituztela eta jasangarritasunaren kultura sozial arduratsua eratu dezaketela da (Barrón eta Muñoz, 2015).

Barrón eta Muñoz (2015) diotenez, eskola ortuak, hezkuntzan jasangarritasuna lantzeko elementu eraginkorrak dira. Hala ere, oinarri pedagogiko batzuk jarraituta sortu behar direla diote:

1. *Ingurune sozialaren, pedagogia kritikoa:* pedagogia mota honek, jasangarritasunaren inguruneko hezkuntza, ikasleentzako eskubide eta betebeharrak bat bezala hartzen du. Gainera, ikasleei jasangarritasunarekin konpromisu aktibo bat izateko eta inguru sozialeko arazoak ulertzeko gaitasunak eskaintzen zaizkie.
2. *Komunitatearen ikuspegi pedagogikoa,* hezkuntza kulturarako aldaketa bat sustatzen duena. Ikuspegi honetan, eskolako baratza, kultura berrituko du eta komunitate berria izatea sustatuko da.
3. *Zeharkako ikuspegiak,* inguruneko hezkuntza, irakasga, instituzio eta kideengan integratuko da. Hau da, inguruko hezkuntza eskolako kultura osoa zeharkatzean datza.

4. *Ikuspegi global* bat, zeinetan pentsamendu sistematikoa indartzen den. Gainera, ingurumeneko arazoak eta eskola baratzako natura osatzen duten, alderdi ekologiko, sozial, kulturalak... konektatzeko kapaza izan behar du.
5. *Lekuko, ikuspegi metodologikoa*, bertako ingurunearen jarreran zentratutakoa. Ikuspegi mota honekin, baratza interes zentrua bilakatzen da, haur guztiak, baratza horren moldaketan parte hartzeko aukerarekin.
6. *Ikaskuntza sozio-konstruktibistaren epistemologia*: honek, ikaskuntza, jarduera funtzionalaren bidez ulertzen du (Dewey, 1951), gainera, ikasleek autoerregulatuko dute (Piaget, 1970), baita besteen laguntzaz baliatuta ere.

Gainera, agroekologiari buruz hitz egiten, Merçon *et al.* (2012), gaur egungo planetako krisi sozioekologikoak eta hiriko gizartearen hazkuntzak, hezkuntzako helburu eta prozesuak birplanteatzea eragin dutela diote. Gainera, diotenez, agroekologiaren bidez, teoria eta praktika sustatzen dira, ikasleen integrazioa bultzatuz. Agroekologia gainera, elikatze-sistemaren harreman emankor, soziopolitiko, ekonomiko eta kulturalak eraldatzeko kapaza da (Merçon, Escalona, Noriega, Figueroa, Atenco eta Gonzalez, 2012).

Hala ere, aipatzekoa da, hiriko agroekologiaren arloan ikerketa anitz egin direla. Hala ere, hiriko agroekologian parte hartu duten hezkuntza alderdiak oso gutxi dira (Altieri, 1983 eta Gliessman, 1998, in Gastón, Aguilera, eta Gonzalez, 2008).

Agroekologia eta hezkuntzaren arteko loturan, hiru hiri ortu kolektibo mota daude: eskolako ortuak, unibertsitatekoak eta komunitarioak. Hiri agrikultura eta hezkuntza formalaren arteko lotura nabariena, hezkuntza erakundeetan gertatzen da, eskolako ortuak eta unibertsitatekoak alegia (Merçon, Escalona, Noriega, Figueroa, Atenco eta Gonzalez, 2012).

Hiri agroekologiaren hezkuntzako beste adibide bat, Leozen (2016) lana da, izan ere, berak eskola baratzari buruzko hainbat autoreren iritzi eta esatekoak aipatzen ditu, bukaeran, Nafarroako lau ikastetxeen baratzetan egindako ikerketak eta emaitzak azaltzen ditu. Gainera, aipatzen duenez, baratza, harremanak sustatzeko baliabide egokia da, baita baliabide pedagogikoa ere.

Leozek (2016) batetik, eskola baratza, pertsonak hezteko eta ikasle autonomoak eratzeko aukera egokitzen hartzen duela, dio. Bestetik, erakunde desberdinak laguntzeko prest egon behar direla dio eskola baratza bat aurrera eramateko. Hau da, irakasle eta gurasoen konpromisoa beharrezkoa dela dio, beste hitzetan hezkuntza komunitate osoaren ardura behar da (Freire in Leoz, 2016).

Bukatzean, Oscarizek (2014), eskola baratza batean proiektu bat aurrera eraman duela ere aipatzekoa da. Berak, hainbat saio eraman ditu aurrera, 6-8 urte bitarteko ikasleentzat alegia. Proiektuaren saioak, helburu batera ailegatzeko jardueren segida batez antolatuta daude. Helburua, baratza bat sortzea da.

Oscariz (2014), eskola baratzean aurrera eramateko 14 saio planteatu ditu eta baratza bat eskolan aurrera eramateko ikas komunitate osoaren parte hartzea ezinbestekoa dela dio. Lehenengo saioan idazleak haurrei baratzari buruz zer dakiten galdetu die bertatik saioak planteatzen hasteko. Horren ostean “Gurbindo etxera” ateraldi bat prestatu du, baratzeko lurzorua prestatu eta tresneria ezagutu dute, baita konposta egin ere. Horrez gain, landareak banaka ukitu, usaindu eta ezagutu dituzte, baita erreproduzioa eta bizi funtzioak ere eta elikaduraz hitz egin dute.

Saioak egin ostean, ebaluazioa burutu du eta emaitzak atera ere. Dioenez, proiektua burutu ostean, baratza, haurren ezaugarri psikologiko zein fisikoak ezagutzeko, ariketa motibagarria dela dio. Baita, naturarekin kontaktua izatea eskaintzen diela haurrei eta era egokia dela irudimena askatzeko. Horrez gain, komunikazioa sortzen laguntzen du, besteekin harremanak estutzen eta zabaltzen ere eta bizipenak partekatzen ikas komunitate osoarekin, ikaskide irakasle, guraso eta lagunekin alegia (Oscariz, 2014).

3. Gradu Amaierako Lan honen helburuak

Gradu Amaierako Lan honek, bi helburu nagusi dituela aipatu genezake. Batetik, Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia etorkizuneko irakasleen profilarren garapenerako eraginkorra den edo ez jakitea. Horretarako, metodologia horren bidez nik garatu ditudan konpetentziak eta balioak zeintzuk diren aztertuko da. Beraz, ondorengo alderdiei erreparatuko diegu. Konpetentziei dagokionez: hausnarketa, kritikotasuna eta komunitatearen beharraren asetzea. Balioei dagokionez: elkarlana, autonomia, altruismoa eta konpromisua.

Bestetik, baratzan kokatutako tailerren metodologia erabiliko denez, helburua, tailer horietan hurrek izan duten ongizatea eta garapena aztertzea da kategoria sistema bat erabiliz. Kategoria horiei dagokionez, ongizatearekin lotuta motibagarria den aztertuko da eta garapenari dagokionez, naturarekin kontaktua eta komunikazioa.

4. Metodologia

Metodologiaren atalean hiru puntu agertuko dira azalduta. Hasteko, zerbitzu osoan parte hartu duten pertsonen identifikazioa eta deskribapena egingo da. Partehartzaileak, Ramon Bajoko ikastetxeko umeak eta irakasleak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle eta irakasleak izango dira; Itxaso Saenz de Lafuente, Maitane Prol eta Elena Lopez de Arana. Jarraian, datu bilketarako tresna eta analisirako metodoa azalduko dira eta bukatzeko zerbitzu osoaren prozedura azalduta agertuko da.

4.1. Partehartzaileak

4.1.1. Ramon Bajoko ikastetxeko umeak eta irakasleak

Ramon Bajoko ikastetxeko Haur Hezkuntzako haurrak lan honen partaide nagusi eta garrantzitsuenak izan dira. Egunero, taldeka egiten genuen lan eta hiru talde egiten genituen. Egindako taldeak, sei umez osatutakoak ziren eta aipatzekoa da, taldeak oso ezaugarri heterogeneoak dituztela. Adina, generoari eta kulturari dagokionez, esperientziaren hartzaileen aniztasun agerian utziz.

Adinari dagokionez, zerbitzua eskaintzen genuen momentuan, haurrak hiru, bost urte bitartekoak ziren. Eskaintza onartu zuten gehienak nagusiak ziren, bost urtekoak alegia. Aipatzekoa da ere, generoari dagokionez, taldeak egiterakoan gutxi gorabehera erdia neskak eta beste erdia mutilak gonbidatzen saiatzen ginela. Azkenik kulturari dagokionez aipatzekoa da sortutako taldeetan %50 gutxi gora behera bertakoak ziren eta beste %50 atzeritik etorritakoak.

Ramon Bajoko irakasleei dagokionez, Carmen Muñoz, Haur Hezkuntzako koordinatzailea dena eta Iñaki Ibargutxi, Ramon Bajoko zuzendaria dena aipatu beharrekoak dira. Izan ere, zerbitzuko partaide garrantzitsuak izan dira, ikastetxean zerbitzua aurrera eramaterakoan gidari bezala ibili izan dira. Baita, bai ikastetxearen bai gure eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasleen artean harremanak ahalbidetu dituzten pertsonak izan dira.

4.1.2 Itxaso Saenz de Lafuente Gonzalez de Mendivil eta Maitane Prol Godoy

Zerbitzuan parte hartu dugun bi ikasleak Itxaso Saenz de Lafuente Gonzalez de Mendivil eta ni, Maitane Prol Godoy gara. Itxaso, orain dela 30 urte, 1987.urtean, jaio zen Gasteizen. Txikitatik, Arantzabela ikastolan ikasi zuen D ereduan. Horren ostean, Leioako Arte Ederretako Fakultatean ikasi zuen bi urtez, baina bertan behera utzi zituen ikasketa horiek eta Gasteizen dagoen Arte eta Goi-mailako Diseinu eskolan ikasten hasi zen. 2010. urtean, Barne Diseinuko Gradua eskuratu.

Ikasketa horiek burutzen zituen bitartean, hiru urteko umeekin egiten zuen lan jantoki batean eta esperientzia polita izan zenez, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa ikastea erabaki zuen. 2012-2013. ikasturtean, San Viator ikastetxeko bi urteko geletako programazioa sortzeko aukera izan zuen bertako tutore izanez. Azkenean, 2013. urtean, Haur Hezkuntzako gradua burutzeko asmoz, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean eman zuen izena.

Ni, Maitane Prol Godoy, 1994an jaio nintzen Gasteizen. Bertan, Haur Hezkuntzatik Batxilergorako ibilbidea egin dut, Barrutia ikastolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza burutu nituen eta Mendebaldea BHI-n Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak egin nituen. Biak D ereduko ikastetxeak dira. Ondoren, 2013. urtetik gaur egun arte, Haur Hezkuntzako graduoko ikasketak burutu ditut EHUn, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultatean hain zuzen ere.

Aipatzekoa dut ere, nire Haur Hezkuntzako graduoko ikasketak burutu ditudan bitartean, nire etorkizunerako baliagarriak egingo zaizkidan hainbat kurtso burutu ditudala. Izan ere, iaz eskola kiroleko monitoreen kurtsoa, euskararen erabilgarritasuna eskolaz kanpoko jardueretan eta gimnasia erritmikoko lehenengo mailako kurtsoa burutu nituen. Gainera, gimnasia erritmikoko entrenatzaile eta kirol anitzeko monitore moduan egin dut lan bi urtez, bai gimnasia erritmikoko klub batean, bai Arabako gimnasiako federazioak dituen eskoletan, bai Gasteizko hainbat ikastetxeetan ere.

4.1.3. Gasteizko hezkuntza eta kirol fakultateko irakaslea

Gradu Amaierako Lan, osoan zehar tutore, irakasle eta gidari izan dena, Elena Lopez de Arana da. Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailean dabilen Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslea hain zuzen ere.


Elenak, Psikologia eta Pedagogiako lizentziaturak burutu zituen, doktoretza egin baino lehen. 2012. urtean, Humanitate eta Hezkuntza Etorkizuneko erakundeetan burutu zuen doktoretza.

Aipatzekoa da ere, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakaslea izan zela 2004-2014 urte bitartean. Baina 2014tik, gaur egun arte, Elena EHUko irakaslea izan da, non 2016ko uztailen, atxiki plaza lortu zuen.

Gainera, aholkulari gisa dabil zentro anitzetan eta Ramon Bajo ikastetxean, 2013-2014 ikasturtetik orain arte dabil. Esateko dago, Ikaskuntza-zerbitzuaren inguruan lan desberdinak burutu dituela.

4.2. Datu bilketarako tresna eta analisirako metodoa

Datu jasoketarako erabili den tresna, egunerokoa izan da. Zuzentasunez idatzi ahal izateko eta jarraibide batzuk izateko, Porlanen (2013) *El diario de clase y el análisis de la práctica* artikulua erabili izan dut. Horretan oinarrituz, egunerokoa, lau zatitan banatu dut; data, deskribapena, arazoaren analisia eta arazoak konpontzeko aukera posibleak (Ikusi 4. Irudia). Eguneroko horretan, bai zerbitzuarekin zerikusia izan duten bileretan gertatutakoa, bai zerbitzuan zehar burututako proposamenak eta horretan suertatutakoa izan dena azalduta agertzen dira (Ikusi 9.1. Eranskina).



4. Irudia: Egunerokoa

Egunerokoen azterketarako, eduki analisia erabili izan dut. Horretarako, Lopez-en (2002) artikuluan zentratu naiz. Edukien analisia, dokumentuen analisiaren forma

partikular moduan hartu dezakegu. Analisi mota horren bidez, testuan adierazten diren ideien azterketa egitea da, hitzen, gaien edo esaldien esanahia kuantifikatu nahi dena izanez (Lopez, 2002).

Gainera, edukien analisiak, dokumentuen ikaskuntzaren teknika klasikoetatik aldentzen saiatzen da, modu honetan ikertzailearen subjektibitate pertsonala baldintzatzen (Lopez, 2002).

Gratu Amaierako Lan honen ikerketa, edukien analisisa erabilita, paradigma kualitatiboan zentratutako eredu bat jarraitzen du. Hala ere bukaeran datuak ere kuantitatiboki azalduta agertzen dira.

Hainbat kategoria atera ditut. Alde batetik, Ikaskuntza-Zerbitzuaren bidez etorkizuneko irakaslearen profilerako garatutako balio eta kompetentziak, nigan garatu direnak hain zuzen ere eta umeen ongizate eta garapena aintzat harturik garatutakoak bestetik, baratzan burututako tailerren proposamenaren egokitasunaren ingurukoak zehazki.

Egunerokoa behin zehaztuta izanda, datuen analisisa egiteko erabili izan dut. Horretarako, Ikaskuntza-zerbitzuaren marko teorikoaz, baratzan zentratutako tailerren marko teorikoaz eta Lopezen (2002) *“El análisis de contenido como método de investigación”* artikulua baliatuz, hainbat kategorizazio atera ditut.

Hurrengoko tauletan, kategorizazio nagusiak agertzen dira, azpikategorizazioekin. Bi dimentsio agertzen dira zehaztuta, bakoitzak bi azpi-dimentsio dituela, batetik, nik, ikaskuntza-zerbitzuaren inguruan garatutako kompetentzia eta balioak eta bestetik, Ramon Bajoko haurrentzat sortutako testuinguruaren egokitasuna umeen ongizatea eta garapena aintzat hartuz garatutakoa. Aipatzekoa da, lehenengo dimentsioko kategorizazio sistema egiteko, hau da, kompetentziak eta balioak banatzeko, Booth eta Ainscowren (2011) *“Guía para la educación inclusiva”* artikulua erabili dudala.

4.2.1. Lehenengo dimentsioa: Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez irakasle profilerako garatutakoa

IKASKUNTZA-ZERBITZUAREN BIDEZ GARATUTAKO KONPETENTZIAK	
Hausnarketa	Zerbait arretaz pentsatu edo aintzat hartzea, ikasteko edo ondo ulertzeko.
Kritikotasuna	Zerbait aztertzeko eta baloratzeko gaitasuna, tratatzen ari den gaiari buruzko irizpide egokiak erabilita.
Komunitatearen beharra asetzea	<p>“Komunitatea”: Ezaugarri edo interes berdinak dituzten pertsonen multzoa.</p> <p>“Beharra”: Zerbaiten gabezia izatea eta hura konpontzea nahi izatea.</p> <p>“Asetu”: Norbaitek, beharren bat beteta edo konponduta ikustea.</p> <p>“Komunitatearen beharra asetzea”: Ezaugarri edo interes berdinak dituzten pertsona multzo baten gabezia beteta edo konponduta izatea.</p>

IKAZKUNTZA ZERBITZUAREN BIDEZ GARATUTAKO BALIOAK	
Elkarlana	Pertsona bat baino gehiagok egindako lana da. Bakoitzak lanaren parte bat egiten du baina guztiak helburu komun batekin.
Autonomia	Autonomia, pertsona edo entitate batek haren arauak ezartzeko eta erabakiak hartzerakoan hauekin gidatzeko gaitasuna da.
Altruismoa	Besteen ongizateaz arduratzea, nahiz eta gure buruarena

	oharkabetu.
Konpromisua	Adostutako betebeharra.

4.2.2. Bigarren dimentsioa: Tailerren bidez umeei garatutako ongizate eta garapena

ONGIZATEA	
Motibagarria	Norbaiten interesa pizten duen ekintza edo objektua.

GARAPENA	
Naturarekin kontaktua	<p>“Natura”: Unibertsoa osatzen duten, espazioan eta denboran diren izaki guztien multzoa</p> <p>“Kontaktua”: Bi pertsona, entitate edo gauzen artean sortzen den harreman edo tratua.</p> <p>“Naturarekin kontaktua”: Unibertsoa osatzen duten, espazioan eta denboran diren izaki guztien multzoekin harremanetan jartzea.</p>
Komunikazioa	Bi pertsona edo gehiagoren arteko tratua edo elkarrekikotasuna.

4.3. Prozedura

Prozesu osoaren lehenengo urratsa irailean egin genuen. Prozesuan bide berdina hartu behar genuen kide batzuk bilera batean bildu ginen gure Gradu Amaierako Lanaren tutoreak izango zirenekin; Elena eta Ana Luisa. Bilera horretan, gure lanaren nondik norakoak azaldu zizkiguten eta ikaskuntza-zerbitzuaren inguruko proiektu bat burutuko genuela azaldu ziguten. Egun horretan bertan, gure aurrezagutzei buruz hitz

egin genuen eta gai horri buruz ezer gutxi genekiela konturatu ginen. Beraz, ikaskuntza-zerbitzuko gaiari buruz informazioa biltzen hasi ginen.

Horren ostean, Erasmus+ beka batekin, lehenengo lauhilekoaren 4. mailako ikasketak Greziara burutzerara joan nintzen. Azaroan, prozesuko kide guztiak, Elena eta Ana Luisarekin formazio saio bat egin genuen. Beraz kanpoan nengoenez, Skypetik egin nuen bilera. Egun horretan, ikaskuntza-zerbitzuari buruz eskuratutako ezagutzak eta irakasle gisa zer nolako gaitasun, balio eta konpetentziak izan behar genituen hitz egin genuen.

Ondoren, marko teorikoa garatu nuen, non Ikaskuntza-zerbitzua zer zen eta nola antolatzen zen jakin ostean, nire zerbitzuaren alorrari buruzko marko teorikoa idatzi nuen, tailerren ingurukoa alegia.

Marko teorikoa bideratuta nuen momentuan, unibertsitateko irakasleak zerbitzua aurrera eramateko hainbat ideia ateratzeko eskatu zidan. Ondoren irakaslearen bidez, Ikaskuntza-zerbitzuan parte hartu behar genuen ikaskideak, Ramon Bajo ikastetxearekin harremanetan jarri gintuen. Bertan, Iñaki Ibargutxirekin (zuzendaria) eta Carmen Muñozekin (HHko koordinatzailea) batu ginen eta zerbitzuaren nondik norakoaz hitz egin genuen.

Hainbat ideia aipatu genizkion, hala nola, janariarekin esperimentazioa egitea edota auzoko entitate batzuekin harremanetan jartzea, ikastetxean zerbitzua eskaini zezaten. Hala ere, Carmenek, ikastetxeak behar zehatzagoa zuela aipatu zigun; baratzan haurrekin ibiltzea eta apaintzea, izan ere, patioan egin beharreko ekintza zen eta gainera, dohainik zen. Beraz, egun horretan bertan baratza ikustera joan ginen eta bertan egiteko tailerrak pentsatzen hasi nintzen.

Baratzan tailerrak egin behar genituela jakin eta gero, tailerren inguruko marko teorikoari, baratzako tailerren inguruko errebisio bibliografikoa egiten hasi nintzen. Baita, Itxaso eta biok, baratzan egin beharreko tailerren diseinua egiten hasi ginen (Ikusi 9.2. Eranskina).

Carmenekin hitz eginda, askoz argiago geratu zitzaigun zer zen egin behar genuena eta Ramon Bajora sei egunez joango ginela adostu genuen. Hala ere, azkenean bost egun joan ginen batean greba zegoelako. Bost egun horiek, maiatzaren azkeneko bi

asteetan izan dira. Izan ere, aurretik Erasmus+ estantzia kanpoan egin nuen eta bueltatzerakoan Practicum III burutu behar izan nuen eta maiatzaren erdialdean amaitzen nuen. Hori dela eta, zerbitzua ezin izan genuen lehenago eskaini.

Zerbitzua, Ramon Bajoko baratzan aurrera eramán genuen Itxaso eta biok. Esperientzia eguneroko batean bildu nuen ondoren horren azterketa egiteko. Azterketa hori egiteko, kategoria batzuk identifikatu nituen, batetik Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez irakasle profilerako garatutako konpetentziak eta balioak identifikatuz eta bestetik, umeen ongizate eta garapena identifikatuz. Horren ostean, ondorio batzuk atera nituen.

Gratu Amaierako Lanaren prozesuarekin amaitzeko, eta Ikaskuntza-Zerbitzuaren fase guztiak errespetatzeko (Tapia, 2010) Ramon Bajon ospakizuna egin genuen eta Rafa Mendia, gaian aditua dena, bertaratu zen hitzaldi bat ematera. Elenak eta Analuk ere, tutoreak, Gradu Amaierako Lanen berri eman zuten eta Itxaso eta biok ere gure esperientzia eta lanaren nondik norakoak aurkeztu genituen bertan. Horren ostean, klaustroko irakasleek haien iritziak eta ikuspuntuak azaldu zizkiguten.

5. Emaitzak

Jarraian, eskainitako zerbitzuan zehar ateratako emaitzak aztertu eta azalduko dira, Horretarako, Porlanen (2013) artikulua bidez garatutako egunerokoa kontuan hartuz, (Ikusi 9.1. Eranskina), kategoria bakoitzaren azterketa egiteko eta hori eman dela egiaztatzeke, esaldiak atera dira.

Emaitzetan, bi dimentsio agertzen dira zehaztuta, batetik, nik, ikaskuntza-zerbitzuaren inguruan garatutako kompetentzia eta balioak eta bestetik, Ramon Bajoko haurrentzat sortutako testuinguruaren egokitasuna txikien ongizatea eta garapena aintzat hartuz garatutako.

5.1. Lehenengo dimentsioa: Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez irakasle

profilerako garatutakoa

Lehenengo dimentsioan sartuz, aipatzekoa da, bi azpi-dimentsio garatu izan direla, batetik, ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kompetentziak eta bestetik, balioak. Lehenengo azpi-dimentsioan, hiru kompetentzia aurkitu ditzakegu, hausnarketa, kritikotasuna eta komunitatearen beharra asetzea. Bestetik, balioei dagokionez, lau garatu egin dira, elkarlana, autonomia, altruismoa eta konpromisua alegia.

Azpi-dimentsio bakoitza garatu ostean, bakoitzaren emaitzak kuantitatiboki azalduta agertzen dira, baita bien arteko alderaketa ere.


5.1.1. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kompetentziak

AZPI-KATEGORIAK	ADIBIDEAK
Hausnarketa (21)	<p><i>“Irakurtzen dudan artikulua guztietatik eskemak egin eta komunean eta ez komunean dutena idazten saiatu beharko naiz”;</i> <i>“Diskurtsoa antolatzeke eskema bat egin beharko dut hurrengoan”;</i> <i>“Artikulu gehiago arakatzen saiatu beharko naiz”;</i> <i>“lehenengo deialdira joaten saiatuko garela adostu dugu baina bigarrenera joateko ere aukera dagoela aurreikusi dugu”;</i> <i>“gainera lanean nago eta Ramon Bajon proiektua burutzeko praktikaldia bukatu arte itxaron beharko dut”;</i> <i>“2.</i></p>

	<p><i>deialdira joatea aukera bat izan liteke</i>”; <i>“Jarduera kanpoan eta ordaindu gabe egiteko, guk baratzeko proiektu bat aurrera eramatea adostu dugu guztion artean</i>”; <i>“Hurrengorako hobeto antolatu beharko dut denbora eta daukadan guztia apuntatu agendan</i>”; <i>“liburuetan ere begiratzea gomendagarria izango litzateke</i>”; <i>“Egunerokoa eta horren azterketa egiten hasi beharko naiz, denbora izateko eta bukaeran horrekin ez larritzeko</i>”; <i>“Horregatik, Carmenekin hizketan ibili eta gero, Itxaso eta biok adostu dugu lehenengo egunean joan behar ginela dinamika ikustera eta hortik abiatuz, arazoak aztertu eta hurrengo egunerako konpondu, baita hurrengo egunerako materiala adostu eta erosi ere</i>”; <i>“Arazo guzti horiek konpontzeko, Carmenekin bilera gehiago egitea beharrezkoa ikusten dut</i>”; <i>“testua irakurri ondoren, egunerokoa hiru zatitan banandu behar nuela pentsatu nuen</i>”; <i>“Ureztagailuak baratza barruan egonda haurrek ez dute ezer gehiago egingo</i>”; <i>“Hurrengo egunean, ureztagailuak hasieratik kenduko ditugu eta azkeneko taldeak bakarrik ureztatuko du</i>”; <i>“Ureztagailuak kenduz, haurrak lasaiago ibiliko direla uste dugu</i>”; <i>“Hurrengo egunean, ureztatzerakoan, binaka jarrita bakoitzean batek egiteko eskatuko diegu</i>”; <i>“Esperimentatzeko eta autonomia modu bat dela deritzot</i>”; <i>“esperimentatzeko modu bat da. Asteroko azterketa bat egin beharko litzateke orain zeintzuk hazten diren eta zeintzuk ez ikusteko</i>”; <i>“Hurrengo baterako, lehenengo talde guztiekin egin beharko genuke jarduera eta bukaeran soberan daudenak jateko erabili</i>”; <i>“Lanean hasi beharko naiz lehen bait lehen</i>”.</p>
Kritikotasuna (12)	<p><i>“Guztiek berdina esaten dutela iruditzen zait</i>”; <i>“Informazioa bildu ostean diskurtsoa antolatzen arazo ugari izan ditut, izan ere, autore askoren definizioak zeuden eta guztiek zeukaten zerbait komunean</i>”; <i>“Beraz idazterakoan informazio guztia pilatzen zitzaidan</i>”; <i>“zerbitzuaren inguruko atal garrantzitsuenak aipatu ditugu...Besteen puntu positibo zein negatiboak ere</i>”; <i>“Aurrera jarraitzeko zailtasunak ditut denboragatik</i>”; <i>“Porlanen testua irakurri ondoren, bakarrik deskripzioa egitea ahalbidetzen dizula</i>”; <i>“Porlanen testuaz gain,</i></p>

	<p><i>deskripziotik aldentzen den eta gure emozioak espresatzea ahalbidetzen duen beste testuren bat irakurtzea ere komenigarria izango litzateke”; “Eguneroko bat..., deskripziotik haratago joan behar dela eta gure momentuko emozioak azaldu behar genituela ere deritzot”; “Lan izugarria dela konprobatu ahal izan dut”; “Konpetentzia ugari atera ditugu eta lan handia izan da gero guztiak bateratu ahal izatea eta bost bakarrik ateratzea”; “Beraz esan genezake landare guztiak ito dituztela eta gaurko helburua ez dugula bete”; “Gure plangintza ez da ondo atera”.</i></p>
<p>Komunitatearen beharra asetzea (8)</p>	<p><i>“Carmenek kanpoan egiteko jarduerak proposatzea nahi zuen, jarduera libre, lasaia, dibertigarria eta motibagarria haurrentzat”; “eskolak baratzan lan egiteko beharra zuela azaldu digu. Beraz, bertan proiektua binaka egitea adostu dugu”; “Marrubiak, labanda edota albahaka landatzeko eta baratza zaintzeko eskatu dit”; “belar txarrak kendu eta baratza apaindu alegia”; “Lehenengo taldearekin marrubiak landatu nahi genituen, bigarrenarekin tomateak eta hirugarrenarekin dena ureztatu eta garbitu nahi genuen”; “gaurko proposamena, baratzean landatuta dituzten tomate Cherryen landareak apaintzea, garbitzea eta makil batez zuzen jartzea”; “helburua, albahaka landatzea da”; “helburua limoiak landatzea da”.</i></p>

Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kategorien emaitzak behin aterata, ondorengo grafikoan hausnarketa gehien garatu den konpetentzia izan dela argi dago, %51ko ehunekoarekin. Aipatzekoa da gainera, alde handia dagoela horren eta kritikotasunaren artean izan ere %29a da eta bion arteko aldea %22koa da. Bukatzeko, prozesuan zehar gutxien emandako konpetentzia komunitatearen beharra asetzea da %20arekin (Ikusi 5. Irudia).



5. Irudia: Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologian garatutako kompetentziak


5.1.2. Ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako balioak

AZPI-KATEGORIAK	ADIBIDEAK
Elkarlana (13)	<p><i>“Elenari bidali diot eta berak zuzentzerakoan hiruroi bai gure marko teorikoak bai besteenak pasatu dizkigu eta hurrengo bilerarako irakurri behar genituela azaldu zigun”;</i> <i>“Marta, Elena eta hirurok bildu gara, ikaskuntza-zerbitzuari buruz egindako marko teorikoaren zuzenketak berrikusteko eta komentatzeko”;</i> <i>“ikaskideen marko teorikoen hausnarketa egin dugu eta Ikaskuntza-zerbitzuaren inguruko atal garrantzitsuenak aipatu ditugu”;</i> <i>“Egunerokoa aurrera eramateko Porlan-en testua bidaliko digu”;</i> <i>“Bertan gure lanaren nondik norakoak eta zein ataletik gindoazen lan egiten begiratu dugu”;</i> <i>“ikaskuntza-zerbitzuaren marko teorikotik, hainbat kompetentzia atera ditugu Martak eta biok gero, Elenarekin amankomunean jarritz”;</i> <i>“Ondoren, Martak egindako eguneroko bat irakurri dugu eta horren azterketa burutu dugu, lehenengo Marta eta biok eta ondoren Elenarekin batera”;</i> <i>“Itxaso eta biok bildu gara Ramon Bajoko baratzan egin beharreko jarduerak adosteko”;</i> <i>“Eguneko, hainbat jarduera prestatu ditugu”;</i> <i>“materiala antolatu dugu”;</i> <i>“bukatu ostean Itxaso, Carmenekin (HHko koordinatzailea)</i></p>

	<p><i>hitz egin du eta jarduerak guztiz aldatu dira</i>”; “<i>egunean bertan Ramon Bajora joan aurretik erosiko genuela adostu dugu</i>”; “<i>Carmenek eskolako beharra zein zen azaldu ostean binaka egingo genuela adostu dugu</i>”.</p>
Autonomia (10)	<p>“<i>Hainbat artikulu arakatu ditut, baita hainbat hitzaldien bideoak ikusi ere</i>”; “<i>Informazio nahiko izan dudanean diskurtsoa antolatzen saiatu naiz eta idazten hasi naiz</i>”; “<i>Marko teorikoa egiten jarraitu dezaket eta alde praktikoa hasi baino lehen hori bukatu</i>”; “<i>Nik, janariarekin esperimentazioan zentratu nahi nintzen</i>”; “<i>tailerren inguruko informazioa bilatzen ibili naiz baita baratzari eta baratzeko tailerren ingurukoa ere</i>”; “<i>Informazio nahiko jaso dudanean marko teorikoa egiten ibili naiz</i>”; “<i>nik hiru puntu azaleratu nituen</i>”; “<i>azkenean laurak hiru puntutan sakabanatu ditut</i>”; “<i>Segituan, giltzak hartu ditugu eta baratzara abiatu gara</i>”; “<i>Ailegatu bezain pronto, giltzak hartu, materiala hartu, baratzara eraman eta haurrak bilatzera joan gara</i>”.</p>
Altruismoa(4)	<p>“<i>Practicuma zela eta atzeratu egin naiz. Beraz, aste honetan zehar markoa egiten ibili naiz eta ostegunean entregatzeko aukera eman dit Elenak, nahiz eta bera oso lanpetuta dabilen</i>”; “<i>Carmen...oso lasai eta libre ibili behar ginela aipatu digu nahiz eta buruan ditugun jarduera guztiak ez atera</i>”; “<i>Haurrak oraindik bazkaltzen zeuden beraz pixkat itxaron behar izan dugu</i>”; “<i>Lehenengo, Martak, bere GrALaren aurkezpena egin du guk hobetu zitekeen gauzak esateko</i>”.</p>
Konpromisua(10)	<p>“<i>Unibertsitatean arratsaldeko 15:30etan gelditu gara bilera egiteko</i>”; “<i>Maiatzaren 15etik aurrera burutuko genuela zerbitzua adostu dugu</i>”; “<i>tailerren inguruko marko teorikoa. Apirilaren 24rako egin behar genuen</i>”; “<i>Elenarekin bildu gara Marta eta biok 15:30etan unibertsitatean</i>”; “<i>bi astetan, astelehen, astearte eta ostegun joango garela adostu dugu</i>”; “<i>Gaur, 13:50etan iritsi gara berriro Itxaso eta biok</i>”; “<i>Gaur berriro ere, 13:50etan iritsi gara</i>”.</p>

gutxi gora behera Itxaso eta biok”; *“Itxaso eta biok eta aurreko egunean negarrez ibili ziren bi neskak garbitzen ibili gara*”; *“berriro ere 13:50etan iritsi gara Itxaso eta biok*”; *“Elena, Itxaso, Marta eta laurok bildu gara unibertsitatean 15:30etan*”.


Ikaskuntza-zerbitzuarekin garatutako balioei dagokionez nahiko berdinduta daudela antzeman daiteke. Elkarlana izan da gehien garatu dena %35ean. Aipatzekoa da, autonomia eta konpromisua berdin garatu direla ikusi dezakegula, bakoitza %27arekin eta elkarlanarekin %8ko desberdintasunarekin. Hala ere, altruismoari dagokionez, soilik %11a garau dela aipatu behar da (Ikusi 6. Irudia).



6. Irudia: *Ikaskuntza-zerbitzuaren bidezko metodologian garatutako balioak*

5.1.3. Ikaskuntza-zerbitzuan garatutako kompetentzia eta balioen alderaketa

Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiaren bidez ateratako kategorizazioan, kompetentzia eta balioen artean gehien garatutakoak kompetentziak izan direla antzematzen da hurrengoko grafikan. Hala ere, biak nahiko paretsu garatu direla aipatu daiteke, soilik %6ko aldearekin. Izan ere, igartzen denez, garatutako kompetentziak, hausnarketa, kritikotasuna eta komunitatearen beharra asetzea %53an garatu dira. Balioak aldiz, elkarlana, autonomia, altruismoa eta konpromisua direnak %47an (Ikusi 7. Irudia).



7. Irudia: *Ikaskuntza-zerbitzuan garatutako konpetentzia eta balioen alderaketa*

5.2. Bigarren dimentsioa: Tailerren bidez umeei garatutako ongizate eta garapena

Bigarren dimentsioan sartuz, aipatzekoa da, bi azpi-dimentsio garatu izan direla, batetik, baratzako tailerren bidez umeei garatutako ongizatea eta bestetik garapena. Lehenengo azpi-dimentsioan, kategoria bakarra aurkitu dezakegu, motibagarria alegia. Bestetik, garapenari dagokionez, bi garatu egin dira, naturarekin kontaktua eta umeen arteko komunikazioa.

Azpi-dimentsio bakoitza garatu ostean, bakoitzaren emaitzak kuantitatiboki azalduta agertzen dira, baita bien arteko alderaketa ere.

5.2.1. Tailerren bidez umeei garatutako ongizatea


AZPI-KATEGORIAK	ADIBIDEAK
Motibagarria(7)	<p><i>“Ureztagailuak baratza barruan zeudela eta haurrak horiek hartuta guztia ureztatzen hasi dira”;</i> <i>“zortzi ume baino gehiago zeuden barruan, guztiak ureztatzen edo urarekin jolasten”;</i> <i>“guztia ureztatzen ere”;</i> <i>“batzuei marrubiengatik interesa piztu zaie eta landatzen ibili gara”;</i> <i>“albahaka landare bat eman diegu...interes handia piztu zaie”;</i> <i>“landare guztiak ureztatzen hasi dira.... Beste batzuk aldiz, haien albahaka ureztatzen ibili dira baina askok ur</i></p>

	<p><i>gehiegi bota diote, baita harekin jolasten ibili ere</i>”; “<i>Limoiaren pepitak kentzen zituzten bitartean, askok limoiak jaten ibili dira</i>”.</p>
--	---

5.2.2. Tailerren bidez umeez garatutako garapena

AZPI-KATEGORIAK	ADIBIDEAK
Naturarekin kontaktua(11)	<p>“<i>Beste batzuk aldiz artaziak hartu eta landare txarren mozketarekin ibili dira.</i>”; “<i>tomatera batean adar batzuk kentzen hasi gara.</i>”; “<i>tomatera horretan makilak jarri ditugu landarea zuzen mantentzeko eta hobeto hazteko</i>”; “<i>lurra ia goraino sartu behar zutela esan diegu gero albahaka landatu ahal izateko</i>”; “<i>bakoitzari albahaka landare bat eman diegu, lurrean zulo bat egiteko eta sartzeko esan diegu</i>”; “<i>Hirugarren taldearekin, aurreko egunean, bukatu ez genuen tomatera zuzen jartzen bukatu dugu eta perejila landatu dugu</i>”; “<i>Batzuk berriro ere, artaziak hartuta landare txarrak kentzen ibili dira</i>”; “<i>Ateratzen zituztenean, lorontzian sartu behar zituzten zulo txiki bat eginez bakoitzari eta pepita sartu</i>”; “<i>Bukatzerakoan bakoitzari ureztagailu bat eman diegu eta bere lorontzia ureztatu...</i>”; “<i>bukaeran dena ureztatzen utzi diegu</i>”; “<i>Hitugarren taldearekin dena ureztatu dugu</i>”.</p>
Komunikazioa(7)	<p>“<i>beste batzuk ezetz esaten barruan gelditu nahi zutela esan dute.</i>”; “<i>aurreko bi taldeetan egondako neska batzuk negarrez ibili dira beraiek ere ureztatu nahi zutelako</i>”; “<i>lasaitu egin dira eta hurrengo egunean haiek garbitzen lagunduko digutela adostu dugu.</i>”; “<i>Kanpora atera behar zirela esan diegunean hirugarren taldea sartzeko gehienak ulertu eta segituan atera dira, beste batzuk aldiz protestaka eta haserre baratza barruan gelditu dira</i>”; “<i>askok beraiek ere nahi zutela esan digute</i>”; “<i>albahakari buruz galderak egiten zituzten; zer da? Zertarako da?...</i>”; “<i>egunero liskarrak izaten dituzte haien artean.</i>”.</p>


Tailerren bidezko metodologiaren bidez umeen garapenean, bai naturarekin kontaktua bai komunikazioa aztertu dira. Emaitzak, honakoak izan dira: naturarekin kontaktua %61an garatu da eta komunikazioan aldiz soilik %39a. Beraz, bien arteko aldea oso nabarmena dela aipatu daiteke (Ikusi 8. Irudia).



8. Irudia: *Tailerren bidez umeez izandako garapena*

5.2.3. Tailerren bidez umeez garatutako ongizate eta garapenaren alderaketa

Baratzan kokatutako tailerretan, haurren garapena nahiko zabala izan da. Aipatu beharra dago, bi azpi-dimentsioen artean, gehien garatu dena, umeen garapena izan dela, %72an, ongizatea %28an soilik gartuz. Hala ere, aipatzekoa da, naturarekin kontaktua gehien garatu den kategoria izan dela, %44arekin. Motibagarria eta komunikazioa aldiz, berdin garatu dira, %28arekin. (Ikusi 9. Irudia).



9. Irudia: Tailerren bidez, umeei garatutako ongizate eta garapenaren alderaketa

6. Ondorioak

Azkeneko atal honetan, Gradu Amaierako Lan osoaren ondorioak azalduko dira. Horretarako, helburuetan zentratuta, ateratako emaitzak teoriarekin alderatuko dira. Modu honetan, teorian idatzitakoa praktikara plazaratuko dugu horren zergati posibleak bilatuz.

6.1. Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiarekin garatutako kompetentzia eta balioen ondorioak

Lehenengoko helburuari dagokionez, Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia eraginkorra den edo ez jakitea izan da. Horretarako, ikaskuntza-zerbitzuaren bidez garatutako kompetentziak eta balioak atera eta aztertu dira.

Aipatzekoa da, Puigek (2014) esaten duena, izan ere ikaskuntza-zerbitzua, komunitateari zerbitzu bat eskaintzea, ikaskuntza kurrikularra eta baloreen ezaguera edota ikaskuntza bateratzen dituen jarduera bat dela dio. Beraz, baieztapen horren arabera, kompetentzien eta baloreen ikaskuntza, batera doa. Horregatik, baieztapen hori jarraituz, kompetentzia zein baloreen ondorioak aterako dira.

Aipatu beharra dago, teorian azaltzen diren ikaskuntza-zerbitzuko kompetentzien artean hirurak modu eraginkorrean landu egin direla, beraz, ikaskuntza-zerbitzua, hezkuntza metodologiatzat sartzea egokia izango litzateke. Balioei dagokionez, nahiz eta desberdintasun nabaria egon lauren artean, balio horiek garatzeko aukera egon da modu eraginkorrean.

Batetik, aipatzekoa da, Puigek (2014) baloreen hezkuntza, ikasleekin modu kritiko, aktibo eta partehartzaile batean praktikan jartzen dela esaten duela. Hau kontuan hartuta eta emaitzetara joz, nabaria izan denez, kritikotasuna landu egin da, hala ere, %29 soilik landu dela aipatu behar da.

Gainera, Puigek (2014) esaten du, baloreen hezkuntza ez dela ikasten entzunez baizik eta horiek praktikan jarritz eta aurrera eraman den ekintzari buruz hausnarketa eginez ikasten dela. Beraz, emaitzak aztertuta, baieztapen hau zerbitzuan zehar oso nabaria izan dela aipatu genezake. Izan ere, hausnarketara jotzen badugu, kompetentzien zati handi bat betetzen duela ikusi daiteke, %51ko portzentaiarekin.

Komunitatearen beharra asetzerakoan aipatzekoa da, ez dela garatu espero bezain beste, %20an soilik garatu dela eta beste konpetentziekin alderatuz, nahiko desberdintasun dagoela. Beraz, Ikaskuntza-zerbitzuan erabilitako metodologiaren bidez, ez garela ailegatu eskatu zitzaigun minimoetara aipatu daiteke.

Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiarekin garatutako balioei buruz, Battle-en (2013) hitzak kontuan izan behar dira. Izan ere, berak esaten duenez, hezkuntzaren helburua mundua aldatzeko prest dauden hiritarrak sortzea da, ez soilik norberaren kurrikuluarekin arduratuta dauden ikasleak sortzea. Modu honetan, autonomia lantzen da. Aztertu izan denez, ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiarekin, autonomia lantzeko hezkuntza proposamen erabilgarria izan dela frogatu da, izan ere, %27an landu egin da. Hala ere, aipatzekoa da, eskainitako zerbitzuaren bidez, hiritartasuna ez dela lantzen frogatu dela.

Gainera, Battle-ek (2013) ikaskuntza-zerbitzua, ikasteko eta irakasteko era bat dela dio, zeinetan, hezkuntza arrakasta eta konpromisua bateratzen diren. Beraz, baieztapen honetatik, aipatu genezake konpromisua lantzeko metodologia egokia dela izan ere, %27an garatu da, baina hezkuntza arrakasta guk eskainitako zerbitzuarekin ez dela garatu. Eskainitako zerbitzuan, haurrei ezagupen batzuk transmititu zaizkie baina horiek barneratu dituzten edo ez jakiteko aukerarik ez da egon, izan ere, entitatetik ez da informaziorik edo baloraziorik jaso, eta zerbitzua bukatu ostean bertaratzeko aukerarik ez da egon.

Beste alde batetik, Puigek (2014), ikaskuntza-zerbitzuaren bidez elkarlaguntzak norabide hirukoitza hartzen duela aipatzen du. Halaber, lankideekin kooperazioan lan egitea, elkartasuna zerbitzua eskainiko zaien talde edota pertsoneri eta hiritartasuna. Beraz, Gradu Amaierako Lan honen bidez eskaini den zerbitzuan elkarlana lantzen dela baieztatu da, %35eko agerpena izan duelako egunerokoetan. elkarlana lantzen dela baieztatu da, baina lehen aipatu den moduan hiritartasuna ez.

Gainera, aipatzeko dago ere elkartasuna landu den edo ez frogatzeko aukerarik ez dela egon. Izan ere, egunerokoa aurrera eramaterakoan, Porlanen (2013) artikulua hartzen da kontuan. Artikulu horretan, eguneroko bat lantzeko urratsak aipatzen dira baina oso estrukturatua dago eta deskriptibotik aldentzeko aukerarik ez dago. Deskripzio horietan gertaeren berri eman izan dugu, baina ez dugu emozioak deskribatzeko aukerarik izan, hortaz nahiz solidaritatea agian garatu den arren, jaso barik gelditu da.

Balioekin bukatzeko Puigek (2014) dio, ikaskuntza-zerbitzuak bestek laguntzeko soilik ez duela balio, baizik eta norbere burua laguntzeko ere. Beraz, metodologia mota honek altruismoa sustatzea ahalbidetzen duela aipatzen du. Baieztapen honekin, emaitzetara jotzen bada, altruismoa lantzen dela egiaztatzen da, %11an. Hala ere, gutxien lantzen den balioa da, lehen aipatzen den moduan, egunerokoa egiterakoan, emozioak azalarazteko aukerarik ez delako egon eta altruismoa bezalako balorea emozioekin transmititzea ezinbestekoa da.

Lehenengo helburuarekin bukatzeko, aipatzekoa da, emaitzetan zentratzen bagara, nahiz eta nahiko paretsu egon argi dagoela konpetentziak balioak baino gehiago garatu direla. Izan ere, konpetentziak %53an garatzen dira eta balioak %47an.

6.2. Tailerren bidez umeei garatutako ongizate eta garapenaren ondorioak

Gratu Amaierako Lan honen bigarren helburua, tailerren bidez umeei garatutako ongizatea eta garapena aztertzea izan da. Ongizateari dagokionez, motibagarria kategoria aztertu da eta garapenari dagokionez, komunikazioa eta naturarekin kontaktua egon den bezalako kategoriak.

Hasteko, garapena modu egokian eman den edo ez ondorioztatuko da. Horretarako, aipatzekoa da, zerbitzua Ramon Bajoko ortuan, izan dela, beraz, haurrak naturarekin kontaktuan egon dira. Gainera, Lopez de Arana *et al.* (2013) aipatzen duten moduan, tailerren bidez umeari testuinguru pribilegiatua eskaintzen zaio, non irakasleak gai batekin loturiko esperientziaren antolaketa ahalbidetzen du. Hau da, material anitzetik abiatuz produktu bat sortzeko aukera eskaintzen zaio umeari, honek, modu globalean inplikaturik, bizituz, esperimenterik. Baieztapen honekin, zerbitzua gaian zentratu dela egiaztatu daiteke, baratzan, modu honetan, naturarekin kontaktua ahalbidetuz %61ean.

Gainera, baieztapen hori kontuan hartuz irudimena helburu garrantzitsu bat dela aipatzen da. Horrez gain Betancourtek (1996) dioten moduan, tailerra, hainbat pertsona helburu berdinarekin biltzea da, hezkuntza alegia. Hezkuntzaren bitartez, helburu nagusia pertsona horiek ideia eta material berriak sortzea da. Beraz, irudimena tailerrekin lantzea garrantzia dauka. Aipatzekoa da, tailerren metodologiaren bidez, irudimena lantzea posible dela. Hala ere, guk tailerren diseinua egiterako orduan, irudimenari lekunik ez diogu utzi. Izan ere, tailerrak formulatzeko denbora gutxirekin

ibili ginen eta esperimentazioa edota irudimena sustatzeko tailerren diseinua prozesu luze eta sakon bat behar du. Beraz, denbora gehiago izanda tailerren metodologiak garapen hori ahalbidetuko zuela aipatzekoa da.

Aipatu behar da, Lopez de Arana *et al.* (2013) diotena, izan ere, diotenez, tailerrek, haurren interesetan zentratua egon behar dute, modu honetan motibagarria izanez. Emaitzetara joz, umeen ongizate eta garapenerako kategorien artean motibagarria ez dela asko garatu ikusi daiteke, beraz helburua ez dela aipatu dezakegu. Izan ere, ongizate eta garapenaren alderaketaren grafikara joz, motibagarria %28an soilik landu dela aipatzekoa da.

Gainera, komunikazioa ez da espero nuen bezainbeste landu soilik %28an landu delako. Izan ere, nahiz eta sei pertsona egon talde berdinean, ez da asko ahalbidetu taldeka lan egitea. Hau da, ekintzak aurrera eramaterakoan, gehienetan, binaka edo hirunaka lan egin behar zutela esaterakoan banaka egiten zuten lan, beraz, bakoitza bere jardueran zentratu egin da eta ez besteekin komunikazioan. Aipatzekoa da beraz, tailerren metodologia aurrera eramaterakoan binaka edo talde txikietan lan egitean komunikazioa lantzeko eraginkorra dela.

Bukatzeko, aipatu behar da, ongizate eta garapenaren arteko alderaketan, gehien garatu izan dena garapenaren alderdia izan dela. Izan ere, aipatzeko dago, garapenaren alderdiko bi kategorien artean naturarekin kontaktua pisu gehien izan duena dela, %44ko portzentaiarekin. Arrazoi horrengatik garatu da gehien alderdi hori. Beste biak, motibagarria eta komunikazioa alegia, %28an garatu dira bakoitza.

6.3. Ondorio pertsonalak

Ondorioekin amaitzeko, ikaskuntza-zerbitzua, tailerren metodologiarekin aurrera eramatea, egokia dela aipatu beharra dago. Izan ere, garatu beharreko kategorien ehuneko handia lantzea ahalbidetzen da. Gainera, aipatu beharra dago, ikaskuntza-zerbitzuak ikasteko aukera zabalak eskaini dizkidala. Hasieran, gaiari buruz ezer gutxi nekien eta prozesu guztiaren ostean izugarri ikasi dut.

Ikaskuntza-zerbitzuak prozesu luze bat behar duen metodologia da, formazio saio asko, informazio bilketa, hartu nahi duzun bidea zehaztu etab. Beraz, aipatzeko dago nahiz urte bateko Gradu Amaierako Lan batean asko aurreratu dudan, urte batekin ez del nahikoa gaiari buruzko ezagutza guztiak barneratzeko eta praktikan jartzeko. Hau

da, komunitate baten beharra asetzeko prozesu askoz luzeagoa eta denbora gehiago behar da.

Bukatzeko, aipatzeko dago, Ramon Bajoko azkeneko bileran egon ginenean, irakasleetako askok momentu horretara arte, prozesuaren berri ez zutela izan aipatu zuten. Horrez gain, batzuk, guk eskaini genuen zerbitzua ez zuela haien beharra guztiz betetzen aipatu zuten, izan ere guk bost egunez ekintza hezigarri bat eskaini dugu baratzan hurrekin egonez. Hala ere, bost egun horiek bukatu ostean, bazkalosteko ordua bete gabe jarraitzen du.

7. Etorkizuneko ildoak

Gradu Amaierako Lanarekin bukatzeko, aipatu behar da, ondorioak atera ondoren hainbat hutsune gelditu direla bete gabe. Izan ere, eskainitako zerbitzuaren hezkuntza arrakasta ahalbidetzen duen edo ez aztertzeke aukera ez da egon. Horregatik, hurrengoetarako, zerbitzua eskaini ondoren, entitatetik zerbitzuaren jarraipen bat egitea egokia izango litzateke.

Bestalde, zerbitzua eskaini ondoren, baratza nola dagoen ikustera bertaratzea ideia ona izango litzatekeela uste dut. Baita, haurrak eskainitako ezagutzak barneratu dituzten edo ez kanpotik behatzea eta aztertzea ere.

Horrez gain, aipatu behar dut, proiektu honen ildotik abiatuta, Ramon Bajon eskainitako zerbitzua, kulturalki eta ekonomikoki desberdinak diren hainbat eskoletan zerbitzu berdina bideratzea egokia izango litzatekeela. Adibidez, Ramon Bajon eskaini ondoren, Gasteizko ikastetxeetan aurrera eramatea gustatuko litzaidakeela. Izan ere, bai entitatea osatzen duten pertsonen, bai haurren jarrerak behatzea eta alderatzea gustatuko litzaidake.

Bukatzeko, aipatzekoa da ere, nahiz eta gure proiektua Ramon Bajon eskaintzen den lehenengo urtea dela eta emaitzak nahiko positiboak izan diren, ikasketxeko hutsuneak betetzeko beste zerbitzuren bat proposatzea egokia izango litzatekeela. Hau da, beharra, bazkalosteko ordurako ekintza hezigarri bat burutzea da baina irakasleek ezin dute hori bete. Horregatik, beste planteamendu bat proposatzea egokia izango litzateke, hala nola, guk, jantokiko monitoreentzako formakuntza saioak planteatzea eta eskaintzea hutsune hori ikasturte osoan bete ahal izateko.

8. Bibliografía

ARCE PROGRAMA-PROIEKTO DOS MARES (2014). *Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuei aholku emateko gidaliburua*. Donostia-San Sebastian: IVAP. 2017ko otsailaren 13an berreskuratuta <https://issuu.com/bgg01/docs/aholkularitza>

Audikana, J.C.. *La comunidad de aprendizaje en marcha*. CEP RAMÓN BAJO VITORIA GASTEIZ.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2017). *Informe de Población Vitoria-Gasteiz 2017. Movimientos demográficos 2016*. 2017ko ekainaren 10ean berreskuratuta <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/11/81/71181.pdf>

Barrón, Á., Muñoz, J. M. (2015). Los huertos escolares comunitarios: fraguando espacios socioeducativos en y para la sostenibilidad. *Foro de Educación*, 13(19), 213-239.

Batlle, R. (2013). *Aprendizaje-servicio*. 2017ko otsailaren 15ean berreskuratuta, <https://roserbatlle.net/aprendizaje-servicio/>

Booth, T. eta Ainscow, M. (2011). Guía para la educación inclusiva: Desarrollando el aprendizaje y la participación en los centros escolares. *Index for inclusion: developing learning and participation in schools*, 3.

Betancourt, A. M. (1996). *El taller educativo: ¿Qué es? Fundamentos, cómo organizarlo y dirigirlo, cómo evaluarlo*. Colombia: Coop. Editorial Magisterio.

Domínguez, B. M. (2014). La educación hoy el valor de mañana: Aprendizaje-Servicio y Educación Inclusiva. *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 30, 183-208.

Ferriere, A. (1971). *La Escuela Activa*. Madrid: Studium.

Freire, H. (2011). *Educar en verde. Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*. Bartzelona: Graó.

Gastón, J., Aguilera, L. eta Gonzalez, C. (2008). *Agroecología y sustentabilidad*. *Convergencia*, 15(46), 51-87.

Leoz, A. (2016). *El huerto escolar ecológico: ¿Algo más que una moda?*. Nafarroako unibertsitate publikoa: Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

López, F. (2002). El análisis de contenido como método de investigación. Huelvako Unibertsitatea. XXI. Revista de educación, 4, 167-179.

López de Arana, E., Rekondo, Z. eta Salegi, E. (2013). *Ziurgabeak diren testuinguruaren erabilera Haur Hezkuntza Gradu ikasleen formazioan (The use of uncertain contexts in Early Childhood Education Degree students' training)*. Ikastaria, 19, 304-310.

Luna, F. eta Jaussi, M^a L. (2011) CP «Ramón Bajo» de Vitoria-Gasteiz. Una comunidad de aprendizaje. Cuadernos de Pedagogía aldizkaria, 270, 36-44. 2017ko ekainaren 12an berreskuratua <https://pnvgasteiz.files.wordpress.com/2010/11/comunidad-de-aprendizaje-ramon-bajo.pdf>

Merçon, J., Escalona, M. Á., Noriega, M. I., Figueroa, I. I., Atenco, A. eta González, E. D. (2012). Cultivando la educación agroecológica: el huerto colectivo urbano como espacio educativo. *Revista mexicana de investigación educativa*, 17(55), 1201-1224.

Ramon Bajo Ikastetxea, (2017). *Blog*. 2017ko ekainaren 10ean berreskuratua <http://ramonbajoikastetxeablog.blogspot.com.es/>

Oscariz, M. (2014). *Baratzea, proiektu osasuntsua eskolan*. Nafarroako unibertsitate publikoa: Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Puig, J. M. (2014). Aprendizaje servicio (APS). Educación y compromiso cívico. *Profesorado; Revista de currículum y formación del profesorado*. Editorial Grao. Barcelona. 18 (3), 168

Puig, J. M., Gijón, M., Martín, X. eta Rubio, L. (2011). Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía. *Revista de educación número extraordinario 2011*, 45-67.

Porlán, R. (2013). *El diario de clase y el análisis de la práctica*. Averroes. Red Telemática de Andalucía. Universidad de Sevilla.

8. Bibliografía

Tapia, M. N. (2010). La propuesta pedagógica del "Aprendizaje-Servicio": una perspectiva latinoamericana. *Tzhoecoen aldizkari zientifikoa*, 5, 23-43.

9. Eranskinak

9.1. Egunerokoa

1. 2017ko martxoaren 1a, asteazkena. Marko teorikoa egin eta besteena irakurri.

Deskribapena

Elenak, Ikaskuntza-zerbitzuaren inguruko marko teorikoa egin behar genuela aipatu zigun. Beraz, aste osoan zehar egiten ibili naiz. Hainbat artikulua arakatu ditut, baita hainbat hitzaldien bideoak ikusi ere.

Informazio nahiko izan dudanean diskurtsoa antolatzen saiatu naiz eta idazten hasi naiz. Bukatzerakoan Elenari bidali diot eta berak zuzentzerakoan hiruroi bai gure marko teorikoak bai besteenak pasatu dizkigu eta hurrengo bilerarako irakurri behar genituela azaldu zigun.

Arazoen analisia

1. Informazio asko dago Interneten baina guztiek berdina esaten dutela iruditzen zait.
2. Informazioa bildu ostean diskurtsoa antolatzen arazo ugari izan ditut, izan ere, autore askoren definizioak zeuden eta guztiek zeukaten zerbait komunean. Beraz idazterakoan informazio guztia pilatzen zitzaidan.
3. Zuzenketa jasotzerakoan, marko teorikoan bideorik ezin nuela sartu azaldu dit Elenak, gainera diskurtsoa ordenean ez zegoela ere.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Irakurtzen dudana artikulua guztietatik eskemak egin eta komunean eta ez komunean dutena idazten saiatu beharko naiz.
2. Diskurtsoa antolatzeko eskema bat egin beharko dut hurrengoan eta aurreko artikuluen eskemak ere arakatu.
3. Artikulu gehiago arakatzeko saiatu beharko naiz eta besteek marko teorikoak egiterakoan erabilitako artikuluez baliatu naiteke

2. 2017ko apirilaren 3a, astelehena. Lehenengo bilera Elenarekin.

Deskribapena

Unibertsitatean arratsaldeko 15:30etan gelditu gara bilera egiteko. Marta, Elena eta hirurok bildu gara, ikaskuntza-zerbitzuari buruz egindako marko teorikoaren zuzenketak berrikusteko eta komentatzeko. Baita Elenak, GrALa nola jarraitu behar genuen hainbat aipamen egiteko ere.

Hasteko, GrALaren atalak entregatzeko datak eta epeak ikusi ditugu, baita epemuga ere eta gure egoerak ikusten hasi gara. Izan ere ordutegiak eta egutegiak adosten hasi behar ginen. Ni Practicumean sartuta nago eta Maiatzaren 12ra arte ez dut bukatzen, beraz lehenengo deialdira joaten saiatuko garela adostu dugu baina bigarrenera joateko ere aukera dagoela aurreikusi dugu.

Horren ostean, ikaskideen marko teorikoen hausnarketa egin dugu eta Ikaskuntza-zerbitzuaren inguruko atal garrantzitsuenak aipatu ditugu. Baita besteen puntu positibo zein negatiboak ere. Modu honetan, geroago gure zuzenketa pertsonalak eta osaketa egiteko aukera izango dugu.

Ondoren, Elenak hurrengo marko teorikoaren zatia nolakoa izango den aipatu digu, izan ere bakoitzak proiektu desberdina egingo duenez bakoitzaren azalpenak eman dizkigu. Baita, txostenaren egunerokoa egin behar dugula ere. Egunerokoa aurrera eramateko Porlan-en testua bidaliko digu horretan zentratzeko eta aipatzen duen moduan egiteko.

Bukatzeko, Ramon Bajon bilera egin behar dugula esan digu. Jada bera harremanetan jarri da eta Apirilaren 24rako dago bilera adostuta.

Arazoen analisisa

1. Praktikaldian nago beraz biltzeko eta GrALarekin aurrera jarraitzeko zailtasunak ditut denboragatik.
2. Arratsaldeetan gainera lanean nago eta Ramon Bajon proiektua burutzeko praktikaldia bukatu arte itxaron beharko dut.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Marko teorikoa egiten jarraitu dezaket eta alde praktikoa hasi baino lehen hori bukatu.
2. Proiektua oso berandu hasi behar dudanez, 2. deialdira joatea aukera bat izan liteke.

3. 2017ko apirilaren 24a, astelehena. Lehenengo bilera Ramon Bajon.

Deskribapena

Gaur Ramon Bajon izan dut lehenengo bilera. Bertan, Haur Hezkuntzako koordinatzailearekin eta eskolako zuzendariarekin bildu gara. Bertan, proiektuaren inguruko zalantzak, iritziak, jarduera posibleak... agertu dira.

Hasieran, ordutegia zela eta proiektua banaka edo binaka burutuko genuela ez genekin, baita proiektua nolakoa izango zen arabera ere. Izan ere, bakoitzak bere ideiak zituen, baina Carmenek eskolako beharra zein zen azaldu ostean binaka egingo genuela adostu dugu.

Bagenekien, proiektua bazkalosteko orduan egin behar genuela beraz, bakoitzak jarduera posible batzuk prestatu zituen. Nik, janariarekin esperimentazioan zentratu nahi nintzen; hala nola, gelatina, fruta eta txokolate... Itxasok aldiz, auzoko hainbat elkarteekin jarri nahi zen harremanetan eta horiekin hurrengo urterako klaseak emateko plangintza bat burutu nahi zuen.

Hala ere, Carmenek kanpoan egiteko jarduerak proposatzea nahi zuen, jarduera libre, lasaia, dibertigarria eta motibagarria haurrentzat. Gainera, eskolak baratzan lan egiteko beharra zuela azaldu digu. Beraz, bertan proiektua binaka egitea adostu dugu.

Gure ordutegiak nola dauden ere adostu dugu eta Maiatzaren 15etik aurrera burutuko genuela zerbitzua adostu dugu.

Arazoen analisisa

1. Janariarekin esperimentazioaren jarduerak burutzeko barruan izan behar ziren, haurrak berriro gela barruan egotea arazo bat ikusten zuten.
2. Itxasoren planteamendurako, dirua behar zela aipatu dute eta haur batzuk jarduera egin gabe geldituko zirela azaldu dute.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Jarduera kanpoan eta ordaindu gabe egiteko, guk baratzeko proiektu bat aurrera eramatea adostu dugu guztion artean.

4. 2017ko maiatzaren 7a, igandea. Tailerren eta baratzaren marko

Deskribapena

Elenak, aurrekoan gure proiektuaren inguruko marko teorikoa egin behar genuela azaldu zigun. Hau da, tailerren inguruko marko teorikoa. Apirilaren 24rako egin behar genuen baina Practicuma zela eta atzeratu egin naiz. Beraz, aste honetan zehar markoa egiten ibili naiz eta ostegunean entregatzeko aukera eman dit Elenak, nahiz eta bera oso lanpetuta dabilen.

Markoan, tailerren inguruko informazioa bilatzen ibili naiz baita baratzari eta baratzeko tailerren ingurukoa ere. Informazio nahiko jaso dudanean marko teorikoa egiten ibili naiz. Oraindik ez dut bukatu baina bukatzeaz nago.

Arazoen analisisa

1. Practicuma zela eta, asko atzeratu dut bigarren marko teorikoaren entregablea.
2. Baratzaren eta baratzeko tailerren inguruko informazio gutxi aurkitu dut.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Hurrengorako hobeto antolatu beharko dut denbora eta daukadan guztia apuntatu agendan.
2. Interneten bilatu dut dena, beraz, liburuetan ere begiratzea gomendagarria izango litzateke.

5. 2017ko maiatzaren 15a, astelehena. Bilera Elenarekin.

Deskribapena

Elenarekin bildu gara Marta eta biok 15:30etan unibertsitatean. Bertan gure lanaren nondik norakoak eta zein ataletik gindoazen lan egiten begiratu dugu. Baita

bakoitzak lehenengo edo bigarren deialdian aurkeztuko den ere. Azkenean, bigarren deialdira joango naizela adostu dut Elenarekin.

Horren ostean, lanak bi atal dituela azaldu digu; hau da, atal teorikoa, marko teorikoa dena eta atal praktikoa, gure proiektuaren egunerokoa eta horren azterketa dela. Beraz, gaur eguneroko baten azterketa egiten ikasiko dugula azaldu digu Elenak.

Horretarako, lehendabizi, ikaskuntza-zerbitzuaren marko teorikotik, hainbat kompetentzia atera ditugu Martak eta biok gero, Elenarekin amankomunean jarriz. Kompetentzia asko atera ditugu eta pixkanaka bi edo hiru batuz, bakarra eratu dugu. Hau da, adibidez; hiritartasuna irakastea, gizarte kontzientzia garatzea eta konpromiso soziala batu ditugu, kompetentzia bakarra sortuz: balioen ikaskuntza. Hala ere, horren barnean azpтитuluak ere jarri ditugu.

Ondoren, Martak egindako eguneroko bat irakurri dugu eta horren azterketa burutu dugu, lehenengo Marta eta biok eta ondoren Elenarekin batera.

Arazoen analisisia

1. Kompetentziak ateratzerako orduan Elenak azaltzen ziguna ez nuen ulertzen eta marko teorikoa berreskuratu arte eta lanean jarri arte ez dut ulertu zer egin behar genuen.
2. Egunerokoaren azterketa egiterakoan bakarrik arazo asko izan ditugu, izan ere ez genekien nondik hasi ezta nola egin ere. Hala ere, ondo ikusi dut lehendabizi gure kabuz egiten uztea.
3. Egunerokoaren azterketa guztion artean egitean, lan izugarria dela konprobatu ahal izan dut. Baita horren zailtasuna ikusi ere.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Kompetentziak ateratzea arazoa izan da hasieren baina lanean jarri garenean segituan harrapatu dugu. Hala ere, kompetentzia ugari atera ditugu eta lan handia izan da gero guztiak bateratu ahal izatea eta bost bakarrik ateratzea.
2. Egunerokoa eta horren azterketa egiten hasi beharko naiz, denbora izateko eta bukaeran horrekin ez larritzeko.

6. 2017ko maiatzaren 17a, asteazkena. Itxasorekin jarduerak

Deskribapena

Carmenekin hitz egin dut telefonoz eta zer nahi zuen landatu azaldu dit. Marrubiak, labanda edota albahaka landatzeko eta baratza zaintzeko eskatu dit. Baita noiz joan gaitezkeen ere hitz egin dugu eta bi astetan, astelehen, astearte eta ostegun joango garela adostu dugu. Gaur goizean, Itxaso eta biok bildu gara Ramon Bajoko baratzan egin beharreko jarduerak adosteko.

Bildu garenean, lehenengo gauza jarduerak planteatzea zen, geroago materiala eroatera joateko. Eguneko, hainbat jarduera prestatu ditugu hiru faseak errespetatuz, hau da, hasierako elkarrizketa, jarduerak eta bukaera, zer ikasi duten eta hurrengo egunean zer egin nahi duten. Bukatu dugunean, materiala antolatu dugu eta egunean bertan Ramon Bajora joan aurretik erosiko genuela adostu dugu.

Hala ere, bukatu ostean Itxaso, Carmenekin (HHko koordinatzailea) hitz egin du eta jarduerak guztiz aldatu dira. Izan ere, berak aipatu duenez egunean bertan zer egin dezakegun adostu genukeen, baita zenbat haur zeuden ikusita momentuan zer egingo genuen adostu eta oso lasai eta libre ibili behar ginela aipatu digu. Horregatik, Carmenekin hizketan ibili eta gero, Itxaso eta biok adostu dugu lehenengo egunean joan behar ginela dinamika ikustera eta hortik abiatuz, arazoak aztertu eta hurrengo egunerako konpondu, baita hurrengo egunerako materiala adostu eta erosi ere.

Arazoen analisisa

1. Carmenekin hitz egin genuenean lehenengo aldiz, ez genekien ezta nondik hasi ere jarduerak prestatzen.
2. Jarduerak prestatzen hasi ginenean, egia da egun batez egon ginela baratza ikusten baina zehazki zer landatu behar genuen ez genekien, ezta dinamika nola zihoan ere ez. Beraz, nahi genituen jarduerak prestatu genituen ideiarik izan gabe.
3. Jarduerak prestatu ostean, Carmenek, horrela ez zela beharrezkoa izatea azaldu zigun, beraz montatutako jardueretatik gauza asko ezabatu behar genituen.
4. Materiala, ezin izan genuen erosi baratzan hasi baino lehen.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Arazo guzti horiek konpontzeko, Carmenekin bilera gehiago egitea beharrezkoa ikusten dut. Berarekin jarduerak antolatu eta aste bateko egokitzapenarekin dinamika nondik nora dihoan ikusi dezakegu.

7. 2017ko maiatzaren 18a, osteguna. Egunerokoaren inguruko hausnarketa eta

Deskribapena

Egunerokoa, Porlanen artikulua jarraituz idatzi behar dugu. Beraz, testua irakurri ondoren, egunerokoa hiru zatitan banandu behar nuela pentsatu nuen; deskribapena, arazoen analisia eta arazoak konpontzeko aukera posibleak alegia. Hala ere, idazten hasi nintzen eta konturatu nintzen ez nekiela zehazki hori egin behar nuen edo ez.

Horregatik, egunerokoarekin zalantzak etorri zitzaizkidan eta Elenari galdetzea ideia hoberena zela pentsatu nuen. Elenari, korreo bat bidali nion atzo egunerokoarekin zalantza asko nituela eta ez nekiela zehazki haren nondik norakoak. Ideia bat nuela buruan baina ondo edo txarto zegoen ez nekien.

Berak, gaur erantzun dit eta ezin didala esan egunerokoa ondo edo txarto dagoen azaldu dit. Izan ere, Porlan aditua dela, horretan oinarritzen bagara eta justifikatzeko gai bagara egokia izango dela azaldu dit.

Aipatu behar dut ere, Porlanen testua irakurri ondoren, bakarrik deskripzioa egitea ahalbidetzen dizula eta eguneroko batek zerbait gehiago eraman behar duela uste dut. Hau da, deskripziotik haratago joan behar dela eta gure momentuko emozioak azaldu behar genituela ere deritzot.

Arazoen analisia

1. Porlanen testua soilik irakurrita egunerokoa egiteko nahikoa ez dela iruditzen zait. Izan ere, nahiz eta aditua den eguneroko on bat aurrera eramateko puntu asko falta zaizkio, emozioen alderdia alegia.
2. Gainera, artikuluan egin beharreko puntuak ez direla oso argi azaltzen iruditzen zait. Izan ere, nik hiru puntu azaleratu nituen baina lau zeudela aipatu zigun Elenak. Hala ere, azkenean laurak hiru puntutan sakabanatu ditut.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Porlanen testuaz gain, deskripziotik aldentzen den eta gure emozioak espresatzea ahalbidetzen duen beste testuren bat irakurtzea ere komenigarria izango litzateke.

8. 2017ko maiatzaren 22a, astelehena. Lehenengo eguna Ramon Bajoko

Deskribapena

Ramon Bajora, 13:30etan iritsi gara Itxaso eta biok eta Iñakirekin bildu gara sarreran. Berari giltza eskatu diogu eta materialaren armairuaren giltza eman digu. Baita gauza guztiak non zeuden ere azaldu digu.

Haurrak oraindik bazkaltzen zeuden beraz pixkat itxaron behar izan dugu, baita hurrengo egunean beranduago etorri gintezkeela ere. Lau haur atera dira jantokitik eta Iñakirekin baratzara joan gara guztiok eta hurrei zer egin behar dugun azaldu diegu, belar txarrak kendu eta baratza apaindu alegia. Ez gara konturatu ureztagailuak baratza barruan zeudela eta haurrak horiek hartuta guztia ureztatzen hasi dira. 10 minutu inguru pasata haur asko ailegatzen hasi dira guztiak sartu nahi zutela esanez. Lau gehiago sartu dira baina hortik aurrera zortzi horiek ateratzen zirenean sartuko zirela azaldu diegu. Hala ere, askok atea irekitzen edo baia saltatzen ibili dira baratzara sartzen.

Momentu horretan zortzi ume baino gehiago zeuden barruan, guztiak ureztatzen edo urarekin jolastean eta Itxaso eta biok guztia kontrolatzen saiatuz eta bitartean landare txarrak kentzen saiatuz.

Beste hamar minutu pasatu direnean, barruan zeuden zortzi hurrei kanpora ateratzea eskatu diegu beste batzuk sartu ahal izateko. Batzuk segituan atera dira baina beste batzuk ezetz esaten barruan gelditu nahi zutela esan digute. Gainera, kanpora atera direnak atea ireki dutenean ume gehiago sartu dira, guk kontrolatu ezinik.

Azkenean, ordu bat pasata, umeak sartzen eta irtetzen egon dira denbora osoan, baita guztia ureztatzen ere. Beraz esan genezake landare guztiak ito dituztela eta gaurko helburua ez dugula bete. Aipatzekoa da ere, ureztagailuak kentzeko aukerarik ez dugula

izan. Izan ere, patioko atea itxita gelditu da eta guk giltzarik gabe egon garela, beraz nahiz eta hurrei ureztagailuak kendu eta izkina batean utzi berriro hartzen zituzten.

Arazoen analisia

1. Ureztagailuak baratza barruan egonda hurrek ez dute ezer gehiago egingo. Gainera guztiz bustiko dira eta beroa eginez gero arazorik ez, baina hotza egiten badu hurrak bustita eta hoztuta egongo dira.
2. Hurrak kontrolik gabe sartzen eta irtetzen ibili dira eta ezinezkoa zen sei edo zortziko taldeak egitea, atea irekitzen edo salto egiten ibiltzen zirelako. Gainera, batzuk ateratzen ziren eta gero berriro bueltatu nahi zuten.
3. Materialaren armairuko giltza bagenuen baina patioko atekoa ez, beraz, ezin genuen materiala hartu edo aldatu. Ureztagailuak baratzan gelditu behar izan dira ez genuelako beste lekurik uzteko eta hurrek ez zuten ezer gehiago egiten.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Hurrengo egunean, ureztagailuak hasieratik kenduko ditugu eta azkeneko taldeak bakarrik ureztatuko du.
2. Ureztagailuak kenduz, hurrak lasaiago ibiliko direla uste dugu. Beraz, kontrolatzea errazagoa izango delakoan gaude. Hala ere, taldeka ibiliko gara, hau da, lehenengo zortzi aterako dira eta zortzi horiek ateratzean beste talde bat sartuko da.
3. Giltza Iñakiri eskatuko diogu edota atea irekita uztea.

9. 2017ko maiatzaren 25a, osteguna. Bigarren eguna Ramon Bajoko baratzan.

Deskribapena

Ramon Bajora, Itxaso eta biok aurreko egunean baino pixkat beranduago iritsi gara, 13:50etan. Iritsi garenean Iñakirekin hitz egin dugu eta patioko giltza eta materialaren armairuko giltza utzi digu.

Ondoren baratzara abiatu gara, ureztagailuak kendu ditugu eta hurrekin jarduerekin hasi gara. Zortziko taldeak egiten saiatu gara baina aurreko egunean bezala

guztiak sartu nahi zuten. Beraz, kontrolik gabe haurrak sartzen eta ateratzen ibili dira denbora guztian.

Gaur, hiru talde egitea geneukan pentsatuta eta nahiz eta astelehenean baino errazagoa izan gure plangintza ez da ondo atera. Izan ere, lehenengo taldearekin marrubiak landatu nahi genituen, bigarrenarekin tomateak eta hirugarrenarekin dena ureztatu eta garbitu nahi genuen.

Lehenengo taldea ailegatu denean, batzuk marrubiengatik interesa piztu dute eta landatzen ibili gara, beste batzuk aldiz artaziak hartu eta landare txarren mozketarekin ibili dira. Bigarren taldea sartu denean berdina gertatu da baina oraingoan tomateekin eta hirugarren taldearekin, bakarrik ureztatzeko denbora izan dugu. Gainera, ureztatzen zebiltzaten bitartean, aurreko bi taldeetan egondako neska batzuk negarrez ibili dira beraiek ere ureztatu nahi zutelako.

Bukaeran, gu garbitzen ibili garen momentuan, neska horiekin berdina gertatu da eta bukatu dugunean beraiekin hitz egitera hurbildu gara. Momentu horretan lasaitu egin dira eta hurrengo egunean haiek garbitzen lagunduko digutela adostu dugu.

Arazoen analisisa

1. Haurrak sartzen eta irtetzen dabilzate oraindik, beraz, oso zaila da baratza barruan kontrola eramatea.
2. Ureztagailuengatik galdetzen ibili dira denbora osoan batzuk beste gauzarik ez zutelako egin nahi.
3. Hurrei kanpora joan behar zirela beste talde bat sartzeko esaterakoan arazo ugari genituen eta baratza barruan gelditzen dira.
4. Haur batzuk guztia egin nahi dute, beraz ez dute dauden jarduera bukatzen, erdira uzten dute eta beste haur bati azaltzen ari garen jarduerara etortzen dira.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Taldeak, hasieratik zehaztuko ditugu. Haien patiora hurbilduko gara, 6 haur hartuko ditugu eta atea itxiko dugu. 15 minutu eta gero beste talde bat deituko dugu.

2. Ureztagailuak bukaeran azkeneko taldeak erabiliko direla azalduko zaie eta hurrengo egunerako kontuan hartu nahi badute, guri hasieratik hirugarren taldean egon nahi dutela esateko.
3. Talde guztiarekin jarduera berdina egiten saiatuko gara. Hala ere, norbaitek proposamenen bat badu hori egiten utziko zaio.

10. 2017ko maiatzaren 29a, astelehena. Hirugarren eguna Ramon Bajoko

Deskribapena

Gaur, 13:50etan iritsi gara berriro Itxaso eta biok. Gure gaurko proposamena, baratzean landatuta dituzten tomate Cherryen landareak apaintzea, garbitzea eta makil batez zuzen jartzea.

Ailegatzerakoan haurrak goiko patioan zeuden, beraz, Itxaso eta biok haiengana joan gara, seiko hiru talde egingo genituela azaldu diegu eta lehenengo taldearekin baratza jaitsi gara. Beste askok beraiek ere nahi zutela esan digute baina bigarren txandan etorriko direla esan diegu eta konforme geratu dira istilurik montatu gabe.

Lehenengo taldearekin, tomatera batean adar batzuk kentzen hasi gara. Asko zeuden beraz ia 15 minutu egon gara. Batzuk beti bezala interesa piztu dute eta jardueran hartu dute parte beste batzuk aldiz, artaziak hartu eta belar txarrak kentzen ibili dira.

Bigarren taldearekin, tomatera horretan makilak jarri ditugu landarea zuzen mantentzeko eta hobeto hazteko eta bigarren tomateran adarrak kentzen ibili gara. Haurrak nahiko lasai egon dira. Kanpora atera behar zirela esan diegunean hirugarren taldea sartzeko gehienak ulertu eta segituan atera dira, beste batzuk aldiz protestaka eta haserre baratza barruan gelditu dira. Jantokiko monitorea etorri da eta haurra hartu du jolastera joateko.

Hirugarren taldearekin, baratza ureztatzen eta garbitzen ibili gara 15 minutuz eta gure gaurko helburua bete dugula uste dugu. Haurrak kontrol batean eta lasai egon diren lehenengo eguna izan da beraz oso pozik atera gara hortik.

Arazoen analisisa

1. Jarduerekin haur batzuen arreta ez dugu deitu, oso zaila dela deritzot.
2. Oraindik, hiru talde daudela eta bakoitzak 15 minutu dituela ulertzea kostatzen zaie.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Jardueragatik interesa ez badute azaltzen haien proposamenak aurrera eramatea ondo deritzogu. Adibidez, artaziekin belar txarrak kendu.
2. Pazientzia galdu gabe azaltzen jarraitu beharko dugu.

11. 2017ko maiatzaren 30a, asteartea. Laugarren eguna Ramon Bajoko baratzen.

Deskribapena

Gaur berriro ere, 13:50etan iritsi gara gutxi gora behera Itxaso eta biok Ramon Bajora. Segituan, giltzak hartu ditugu eta baratzara abiatu gara. Haurrak bere goiko patioan daudenez, haien bila joan gara eta seiko hiru talde egingo ditugula azaldu diegu. Seiko talde bat bete dugunean behera joan baino lehen, askok beraiek ere nahi zutela esan digute eta bigarren edo hirugarren txandan etorriko zirela esan diegu.

Gaurko gure helburua, albahaka landatzea da. Lehenengo eta bigarren taldearekin jarduera berdina egin dugu. Baratzara ailegatzerakoan, egunero bezala, ureztagailuak bilatzen ibili dira baina gero aterako ditugula esan diegu. Sei haurrak jarduera azaltzeko bildu ditugu eta bakoitzari pala bat eta baratzeko lorontzi bat utzi diegu. Bertan, lurra ia goraino sartu behar zutela esan diegu gero albahaka landatu ahal izateko.

Bukatzen zihoazten momentuan, bakoitzari albahaka landare bat eman diegu, lurtean zulo bat egiteko eta sartzeko esan diegu. Interes handia piztu dute. Gainera, albahakari buruz galderak egiten zituzten; zer da? Zertarako da?... Guk usaintzeko, ukitzeko etab. esan diegu, baita pizzari botatzen zaiola ere.

Bukatzerakoan, bakoitzari ureztagailu bat eman diegu eta bere lorontzia ureztatu behar zutela azaldu diegu. Askok, landare guztiak ureztatzen hasi dira eta zonalde batekoak ureztatzeko esan diet. Beste batzuk aldiz, haien albahaka ureztatzen ibili dira

baina askok ur gehiegi bota diote, baita harekin jolasten ibili ere, beraz horik haziko diren zalantzak ditugu.

Hirugarren taldearekin, aurreko egunean, bukatu ez genuen tomatera zuzen jartzen bukatu dugu eta perejila landatu dugu, bukaeran dena ureztatzen utzi diegu. Batzuk berriro ere, artaziak hartuta landare txarrak kentzen ibili dira. Bukaeran, haurrak joan direnean, Itxaso eta biok eta aurreko egunean negarrez ibili ziren bi neskek garbitzen ibili gara.

Arazoen analisia

1. Hiru ureztagailu bakarrik daudenez, egunero liskarrak izaten ditugu haien artean. Hala ere, normalean konpontzen dira.
2. Albahaka ureztatzerakoan ur gehiegi bota diote batzuk eta haien lorontzietako lurrarekin jolasten ibili dira.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Hurrengo egunean, ureztatzerakoan, binaka jarrita bakoitzean batek egiteko eskatuko diegu.
2. Esperimentatzeko eta autonomia modu bat dela deritzot, bakoitzak bere landarea dauka, ur kopuru desberdinak bota dizkiote eta hortik haurrekin landarearen hazkuntzaren azterketa egitea baliagarria eta komenigarria izango litzateke.

12. 2017ko ekainaren 1a, osteguna. Azken eguna Ramon Bajoko baratzen.

Deskribapena

Azkeneko eguna da gaur, berriro ere 13:50etan iritsi gara Itxaso eta biok. Ailegatu bezain pronto, giltzak hartu, materiala hartu, baratzara eraman eta haurrak bilatzera joan gara. Beti bezala, seiko hiru talde egingo genituela esan diegu haurrei eta lehenengo taldearekin jaitsi gara.

Gure gaurko helburua limoiak landatzea da. Lehenengo eta bigarren taldearekin jarduera berdina egin dugu, baina oraingoan lehenengoarekin banaka eta bigarrenekoekin binaka. Lorontzi txiki bana eman diegu bakoitzari edo bikote bakoitzari lurrez betetzeko esan diegu. Gero, limoi erdi bana eman diegu eta bertatik pepitak kentzeko eskatu diegu. Ateratzen zituztenean, lorontzian sartu behar zituzten zulo txiki

bat eginez bakoitzari eta pepita sartu. Ondoren izkina batean jarri ditugu denak eta bakoitzari berea ureztatzen utzi diegu. Limoiarenean pepitak kentzen zituzten bitartean, askok limoiak jaten ibili dira.

Hirugarren taldearekin, dena ureztatu dugu eta bukaeran Itxaso eta biok dena garbitu dugu.

Arazoen analisia

1. Limoiak landatzerakoan batzuk lurrarekin jolasten eta nahasten ibili dira beraz, pepitak ez zeuden behar zuten tokian.
2. Limoiak ureztatzerakoan, batzuk ur asko bota dute eta batzuk gainera limoiaren azalak sartu dituzte.
3. Lehenengo taldea, limoi pilo bat jan ditu beraz, bigarrenarentzako bakarrik binaka lan egiteko limoiak geratu dira. Hala ere, elkarlana lantzen dela horrekin deritzot.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Aurrekoan bezala, esperimentatzeko modu bat da. Asteroko azterketa bat egin beharko litzateke orain zeintzuk hazten diren eta zeintzuk ez ikusteko. Zergatik gertatzen den aztertu ere.
2. Hurrengo baterako, lehenengo talde guztiarekin egin beharko genuke jarduera eta bukaeran soberan daudenak jateko erabili.

13. 2017ko ekainaren 5a, astelehena. Elenarekin bilera.

Deskribapena

Elenarekin, Itxaso, Marta eta hirurok bildu gara unibertsitatean 15:30etan. Lehenengo, Martak, bere GrALaren aurkezpena egin du guk hobetu zitekeen gauzak esateko.

Horren ostean, Marta joan da eta Itxaso eta Elenarekin geratu naiz. Momentu horretan, Ramon Bajon egindako zerbitzuari buruz hitz egin dugu; gure esperientziari buruz, izan genituen arazoak, zein adinako haurrekin egon ginen...

Horren ostean, GrALean zehar egindakoa eta aurreko bileran azaldutakoa birpasatu dugu eta ondoren Elenak, txostenean egin beharreko metodologia azaldu digu. Partehartzaileak, metodoa eta emandako urratsak egin behar genituela azaldu zigun.

Arazoen analisisia

1. Lan asko dagoela egiteko iruditzen zait, baita denbora gutxi ere.

Arazoak konpontzeko aukera posibleak

1. Lanean hasi beharko naiz lehen bait lehen.

9.2. Ramon Bajoko baratzailearen proposamena

EGUNA	HASIERAKO ELKARRIZKETA	JARDUERA	BUKAERAKO ELKARRIZKETA
Maiatzak 22, astelehena	<ul style="list-style-type: none"> Nortzuk gara. Nortzuk dira? Arau batzuk zehaztu Zer egin nahi dute? 	Baratzean sartu eta barruan daudela esperimentatu, galderak egin eta zalantzak argitu.	<ul style="list-style-type: none"> Baratzean ikusitakoa marraztu eta karteletan itsatsi. Jarduerak proposatu: Tomateak landatu eta marrubiak landatu. Biharko ekarri beharreko materiala: tomateak eta marrubiak
Maiatzak 23, asteartea	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko eguneko gogoratu Frutak, landareak eta loreak bereizi Jarduera azaldu 	Tomateei pepitak kendu eta plater batean sikatzen utzi. Gero baratzean sartu eta marrubiak landatu.	<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak proposatu: esperimendua, lore zuriri kolorantea bota. Biharko ekarri beharreko materiala: kolorantea eta loreen bulboak.
Maiatzak 25, ostirala	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko eguneko gogoratu Zer dira loreak? Zeintzuk dira lorearen zatiak? 	Loreen bulboak landatu eta ureztatu. Gero, aurreko eguneko tomateen pepitak landatu eta dena ureztatu.	<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak proposatu: landare usaintsuak landatzea Biharko ekarri beharreko materiala: albahaka eta labanda.
Maiatzak 29, astelehena	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko eguneko gogoratu Zer dira landareak? Zer dira landare usaintsuak? 	Landare usaintsuak usaindu eta gero landatu eta dena ureztatu.	<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak proposatu: Babarrunak, dilistak edo garbantzuak kristalezko pote batean kotoiarekin landatu eta jarraipena egin. Biharko ekarri beharreko materiala: Kristalezko pote bat, kotoia eta lekaleak.
Maiatzak 30, asteartea	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko eguneko gogoratu Zer dira lekaleak? Ukitu, jan, usaindu... 	Bakoitzak, babarrun, dilista eta garbantzu bana kotoiak landatu. Baratzeke gauza guztiak ureztatu.	<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak proposatu: Egindako guztiaren kartelak egin Biharko ekarri beharreko materiala: Kartulinak, paperak eta margoak.
Ekainak 1, ostirala	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko eguneko gogoratu 	Baratzean sartu eta esperimentatu, galderak eta zalantzak argitu. Ondoren, aurreko egunetan egindako guztia gogoratu eta karteletan marraztu eta itsatsi.	<ul style="list-style-type: none"> Zer ikasi dute? Zer gehiago ikasi nahiko lukete?

9. Eranskinak
9.3. Ramon Bajoko baratzan ateratako argazkiak



